

## EUSKAL HIZKUNTZA ETA KULTURA<sup>1</sup>

### ***Ibai Iztueta Azurmendi***

*Humanitateen eta kognizio zientzien adarrean doktore*

«Eta milagarrenez egiaztatu nuen trapuan zutela pupua, gaizoek, eta ez guk bezala, pupuan trapua»

Hasier Etxeberria (2013)

### LABURPENA

Artikulu honen muina euskal kultura definitzearen eta definizioak euskal kulturatik burutzearen arteko aldea da. Edo, bestela esanda, kritika objektu izatearen eta subjektu kritiko izatearen artekoa. Ildoan, hiru ideiaren jorratzen dira. Hasteko, euskal gizartea eta euskal herria (sic) ez direla gauza bera, eta komeni dela bereizketa hori egitea hizkuntzen normalizazioari begira eskubide eta betebeharrak banatzeko. Bigarrenik, identitateak hizkuntza transzenditzen duen ustearen aurka, identitatea eta hizkuntza, biak elkar konfiguratuz ulertu behar direla. Hirugarrenik, berriz, euskal kultura ez dela *cultura vasca/culture basque-ren* parte defendatuko dugu, hain zuzen, euskaraz hitz egitea espainolez edota frantsesez hitz egitearen parte ez den bezala.

Gako hitzak: Euskal Herria, euskal herria, euskal gizartea, euskal kultura, cultura vasca, culture basque, hizkuntzen normalizazioa, identitatea, hizkuntzak

*Jasotze data: 2017ko apirilaren 04an. Onartze data: 2017ko maiatzaren Sean*

---

1 Testu hau idazterakoan *Cultura vasca vs Euskal kultura* liburuaz eta haren ingurukoez baliatu gara. Aipuei dagokienez, esan dezagun euskaraz eman ditugula, jatorrizko espainolez edota frantsesez uztea egokiagoa iruditu zaigun kasuetan izan ezik.

## BASQUE LANGUAGE AND CULTURE

### ABSTRACT

This paper aims to examine the difference between defining Basque culture in itself, and the development of definitions based on Basque culture. In other words, it explores the difference between being the object of criticism and being a critical subject. Three main ideas are developed. Firstly, *euskal gizartea* (Basque society) and *euskal herria* (the Basque people; understood as the people that consider themselves Basques, in the same way the Spanish, French, Scottish people consider themselves Spanish, French or Scots) are not the same thing, and it is important to distinguish between them when distributing rights and obligations in relation to language normalisation. Secondly, in contrast to the belief that identity transcends language, it is important to understand that identity and language in fact shape each other. And thirdly, we hold that *euskal kultura* (Basque culture) is not a part of *cultura vasca/culture basque*, just as speaking Basque is not a part of speaking Spanish or French.

Key words: *Euskal Herria*, *euskal herria*, Basque society, Basque culture, *cultura vasca*, *culture basque*, language normalisation, identity, languages.

Bada hor Thomas Szasz antipsikiatra hungariarraren esaldi bat, ezagun samarra-  
edo, dioena animalien erresuman araua jatea ala jana izatea den bezala, gizakion artean  
auzia definitzean ala definitua izatean datzala (1973:20). Egia esan, bere bortitzean, ez  
da oso sententzia atsegina, bi mutur horien tartean eman litekeen elkarrizketari auke-  
rarik izateko tarterik utzi gabe dator-eta; baina beharbada baliagarri gerta liteke euskal  
kultura definitzearen, ala definizioak euskal kulturatik burutzearen arteko aldeaz gogoe-  
ta egiteko.

### Aztertzaileaz eta aztergaiaz

1936an ihes egin behar izan ondoren, 1953an itzuli zen Joxe Migel Barandiaran Saratik  
Ataunera. 1964an Nafarroako Unibertsitateko *Etnologia Vasca* Katedraren ardura hartu  
zuen. Eta ez omen zen unibertsitatean beste irakaslerik bere saioetara joaten zen be-  
zainbat ikasle zeukanik. Zer, hainbesteko interesa Barandiaran irakasle on-ona zelako?  
Ala, Euskal Herriko ikasleen artean etnologikoarekiko grina eta sentsibilitate bizia ze-  
goela da kontua? Nik ez dakit. Nahiko ziurra da, ordea, nolana den ere jende multzo  
honek antropologiarekiko azaldutako interesean izango zuela eraginik Euskal Herria  
herri azpiratua izatearen gaineko kontzientzia politikoak.

Izan, joandako aldiarekiko jakin-mina normala bada munduko edozein herri al-  
fabetaturengan, esan liteke zalantzan jarritako identitateen kasuan ia espero izatekoa  
ere badela. Garrantzitsua da etnologiak edota folkloreak eskain dezakeen iraganerako  
begirada. Eta ez herri identitate azpiratuentzat soilik. Baita egora zailtara eramaten di-  
tuzten beste kolektibo batzuentzat ere. Angela Carter nobelagile ingelesak munduan  
barrena jasotako kontakizun tradizionalen bilduma osatuko du, propio emakumezkoak  
protagonista dituen. Sarrerakoan, alemaniarrei, norvegiarrei, eskoziarrei buruz aritu  
ondoren, hala idatzi du:

«1916ko Iraultza irlandarrera eraman zuten gertaerek herri-poesiarekiko garraren eta grinaren  
piztea ekarri zuen uhartean, hala nola euren musika eta kontakizunetikoa, eta ofizialki irlandar  
gaelikoa hizkuntza nazionaltzat hartuz amaitu zuten. (...) Orain ere prozesu honek jarraitu egiten  
du; izatez, bada egun Bir Zeniteko Unibertsitatean folklore departamentu oso langile bat: 'Bertako  
kultura gordetzeko interesa Zisjordanian da bereziki nabarmena, Palestinaren estatusa nazioarteko  
deliberoen menpekota izaten jarraitzen duelako, eta herri arabiar-palestinar autonomoaren identita-  
tea auzitan jarria izaten ari delako', esaten digu Inea Bushnaq.

Nik, eta beste emakume askok, maitagarri-ipuinetan emakumezko heroiak bilatu izana pro-  
zesu beraren beste aldaera bat da: balioa eman nahi diot dagokidan etorkizunaren zatia izateko nire  
aldarrikapenari eta, horretarako, dagokidan iraganaren zatia eman diezadaten exijitzen dut.»

(Carter, 2016:26)

Iraganaren inguruko konstrukzioek mitikoak eta mitifikatzaileak izateko joera dutela gezurra ez da, zeren eta jakina denez, urrutiko intxaurrak hamalau. Eta zeinen osasungarria kritika arrazoitu eta dokumentatua. Nolanahi den ere, neure aldetik behintzat ez nuke azpimarratuko atzerako so hau aparteko aintza edota araztasunez distira egiten duen eredu bilaketa hutsa denik, baizik eta, gehiago, orainean aurkitzen nekeza izango den nolabaiteko normaltasun eta arruntasun eremu baten miraz buruturiko ariketa. Erroak bilatzea erroak botatzeko era bat baita.

Bai, ziurrenik, Barandiaranen ikasleen etnologiarekiko interes larriak zerikusia du arrotz sentitzeak dakarren ondoez eta ziurtasun falta arindu nahiak eskatzen duen jatorriaren inguruko azalpenarekin. Zeren eta, hala nola uneren batean funtziona dezakeen migratzailearentzat “normaltasuna” eskaintzen dion erreferentziatzko puntu gisa jaioterriak, ezin harrutuko gara euskaraz egiten duelako edo, alderantziz, euskararik jaso ez duelako bere herrian arrotz sentitzen diren baten batzuek – espazioaren dimentsioan ezin eta- begirada denboraren ardatzean atzerantz mugitzeko gogoia izatea, alde edo molde euskaldun izatea *arranta* deneko munduaren xerka. Etnologiak eta folkloreak Modernitate aurreko tsunamiaren aurreko munduaz diharduten heinean, esango genuke Barandiaranen lanak bilatzaile hauei desintegrazio giro hartan arnas gune edo helduleku bat eskaini ziela, orainean kokatzeko ez ezik, baita, Angela Carterren antzera, etorkizunari buruzko norabidea argitzeko ere.

Euskal kulturari buruzko Barandiaranen ikerketa lanak akademiko-zientifikoak izan dira, noski. Eta balio politikodunak ere bai, ukazioaren aurrean legitimaziorako aukera eskaintzeagatik. Izan ere, begi bistakoa da, kultura nozioak kon- tzeptualki “herri izaera”, “zientzia” eta “hezkuntza” adierak berez bezala asoziatu iradokitzen dituen unetik, herrien arteko azpiratze-erresistentzia gatazketan jokatzen duen papera: Estatu egituren jabe diren herriak, egitura juridiko horrek berak justifikatuko ditu herri, gizarte eta kultura gisa; aldiz, estatu egitura propiorik gabeko herrien soberania onartuko –nahiz ukatuko- bada, beharrezko izango da datu historiko, antropologiko, soziologikoz zamatuta, eta horiei galdezka, identitate propioa frogatuko lukeen kulturarik baden ala ez kalkulatu, epaitu, arrazoitzea.

Alde horretatik, legitimitate aldarrikapen horretan Barandiaranen lana ekarri handiko arteria zabaltzat hartuko nuke, odol biziberrigarritz bustitako zain, zain-adar eta adaxkez josiriko sarearen baitan.

Izen zerrenda luze-luzea has liteke. Baina aipa ditzagun, hemen, esate baterako, Juan Mari Arzak, Blanka Gomez de Segura eta Ramon Saizarbitoriarenak, hirurek tradizioari buruz zer esanik izan dute-eta. Egun hainbesteko tamaina hartu duen Euskal Sukaldaritza Berriaren Mugimenduari buruz ari dela, Arzakek euskal kultura aldarrikatzen den giro batean sorturikoa dela erantzungo dizu; horregatik berreskuratu zituztela plater “zaharrak” (Sala, 2003). Elosuko Ollerieta auzoko bere txokotik, Gomez de

Segurak ere antzera jardungo du buztingintza tradizionalen espezializatzearen arrazoiei buruz galdetua izaterakoan:

«Laurogeigarren hamarkadaz ari gara. Gazteak ginen, baina konprometitutako pertsonak ginen. Uste dut errealitate horren barruan ulertu behar dela: frankismoak azken astinaldiak bizi izandako jende gaztea ginen, gure herrialdearen gauzak berreskuratzeko, herrialdea eraikitzeko ... ilusio handia genuen; alegia, gure herriaren kultura eta esentziak berreskuratzeko. Eta hori zen testuingurua.»

(Diaz de Mendibil, 2013:93)

Kultur ekimen kolektiboekin hala gertatu ohi da, hainbeste lagunen ekarpena izan duen habaila honek ondorio oso duin batzuk izan ditu; beste batzuk, ez hainbeste. Zein bere etxekoa da-eta, kontu hauekiko sentsibilitatea dugunoi, adibidez, industriaurreko gizartearen espresio, balio eta ondarearekiko agerturiko begirunea eta memoria lana zeharo estimagarri izan zaigu. Izipiritu lurtarragoentzat, berriz, seguru asko etekin ekonomiko ederra ekarri duen sukaldaritzaz bezalako jardueren garapena izango da balioestekoa. Eta ongi da, edonola ere.

Baina, idatzi honetan behintzat, ororen buru, bilaketa horretatik eratorritako autoestimuak euskaltasunari gizarte garaikidera egokitzeko eskaini dion euskarria nabarmenduko genuke. Esan dugunez, helduleku bat, desintegrazioaren kontra, gizartearen eraldaketa etengabearen baitan subjektu autonomo bezala gorputz hartzen joateko.

Ondorio ez hain duinen artean, oster, egokitze garaikide honen ifrentzua aipa liteke. Hau da, zenbait jenderen artean, gizarte “tradizionalaren” erreferentzien inguruan objektibizaturiko “euskaltasun jatorraren” ideia zaharra nola iraunarazi eta sozializatu den. Ramon Saizarbitoriak, sobera ere, ernegu hau ibiliko zuen, Gipuzkoako Urrezko Domina jasotzerako hitzaldi gomendagarrian, kultura terminoaren “antropologizazioa” deitoratu eta kulturaren eta subkulturaren mugak ongi marraztu beharraz mira egiten zuela adieraziri zuenean (Saizarbitoria, 2016). Funtsean, kulturaren izenean plaza batean bakailaoa pil-pil erara prestatzeko taldekatzearen eta euskal literatura idaztera edota irakurtzera esertzearen arteko aldeaz ari zen. Bi gauza oso diferente direla, alegia, kulturaren izenean kamisetan eslogan bat jarrita korrika irtetea eta munduko giza taldeen artean euskaraz bizi den taldeko partaide izateko konpromiso garaikidea.

Bada aldea. Hain zuzen ere euskal kulturari objektu gisa banalki begiratzearen eta euskal kulturatik subjektu gisa jardutearen arteko jauzi kritikoa dago bi joera hauen artean. Objektuak isilak dira. Subjektuak, berriz, hitzunik; eta, deskuidatuz gero, nahi duena esaten duenari nahi ez duena erantzun diezaiokete. Objektuekiko harremana errazagoa izaten da, subjektuekiko baino. Eta horregatik, apika, ez konplikatzeagatik, hainbati kosta egiten zaio onartzea nola, besteak beste, Barandiaranek antropologiatik deskribaturiko objektuaren inguruan taldekaturik, objektu harekiko erlazioan, alde zein

kontra, hura dela medio, baldintza aski zailetan eta ondo kostata, lehen ez zegoen subjektu baten aukera joan den (ber)eraikitzen. Hau da, honezkero XXI. mendean sartuz, euskaraz ere alfabetaturiko hiritarraren ahotsa, bere aniztasun euskaldunean. Lehenago halakorik entzuten ez zen tokian, beste ahots bat.

Barandiaranek “etnia” kontzeptua erabili zuen. Eta, ildoan, euskal abertzaletasunari “etnizista” izatea leporatzeak inteligenteeago izaten laguntzen duela kalkulatu izan du hainbatek. Zehazten hasita, adibidez, E. J Hobsbawm (1992:150) batek susmatuko digu immigrazio espainolak katalanez baino euskaraz askoz gutxiago ikasi zuela, zergatik eta, katalanismoak autonomismorantz eta ezkererantz egin zuelako, eta, aldiz, euskal mugimendua independentista eta xenofoboa zelako. 1980ko datuei helduta, eta Euskal Herriko biztanleen ia %100ak espainolez/frantsesez zein arrazoi misterioetsugatik ote dakien beste baterako utziz, nonbait, Kataluniako biztanleen %80k katalanaz bazekien bitartean euskararen ezagutza Euskal Autonomia Erkidegoan %30koa zela konparatuko du Hobsbawumek. Eta ondoren, hala jarraituko du:

«(...) hau agian lotuta dago euskal nazionalistek autonomiarekiko baino independentziarekiko agerturiko entusiasmo handiagoarekin. Euskal nazionalismoaren eta katalanaren arteko dibergentziak (...) ziur asko handitzera egin du denborarekin, hein handi batean katalanismoa masa indar bihurtzeko era bakarra ezkerreara egitea zelako, horrela langile mugimendu boteretsu eta independente bat integratze aldera. Bitartean, euskal nazionalismoak, langile klasearen mugimendu tradizionalak bakartzea lortuko zuen eta, denborarekin, baita praktikoki ezabatzea ere. (...) Agian, euskal mugimenduarekin konparazioan, ez da harrigarria izango katalanismoak Katalunian bizi diren immigranteak asimilatzerako orduan izandako arrakasta ikusgarriagoa (langile klasekoa, nagusiki), euskal nazionalismoa hein handi batean xenofobiari esker mantenduko da-eta.»

(Hobsbawm, 1992:150)

Arestikoak eta antzeko beste hamaikatxo irakurrita, ez litzateke harritzekoa izango Euskal Herria urrun samar geratzen zaion fижiar edota armeniar historia zale batek pentsatzea abertzaleen errua direla egun ere euskaraz ez jakiteko eskubidea bermatzen duten bai EAEko ikastetxeetako hizkuntza ereduak, bai Nafarroako hizkuntza zonifikazioa, bai Iparraldeko euskararen ofizialtasunik eza. Eta, tira. Zer egingo diogu, bada. Noizpait Fijira edo Armeniara puntuok argitzera bisita egin ahal izateko egunari itxaron behar. Baina, nahiz eta salaketa hauen aurrean azalpenak ematen hastekoa baino azalpenak eskatzen hasteko gogo handixeagoa izan, jakingarria bestea da, guk uste: Hobsbawumen hitzen larderia eta erantzukizunik eza. Alegia, nola horretarako argudio sendoegirik eman beharrik sentitu gabe, eta egia ez direnak esanez, egun ere ukatua den Euskal Herriaren izatea defendatu nahi den tokian, euskal identitatea zer den eta zer ez epaitzeko asmo baztertzaille bat aurkezten den.

Objektuen isiltasunaren aurrean izaten den erraztasuna nabari dela esango nuke, manera hauetan.

Elkarrizketarik onartzen ez duen *framing* edo marko baten logikaz aritzeko aitzakia emateak bihurtzen du aipagarri Hobsbawmen pasarte. *Framing*-a, nolabait ere, hizkuntzaren bidez kognizioan eragiten duten errealitatea ulertzeko marko edo eske-mak sortzeko ariketari esaten zaio (Lakoff, 2013). Markoak, zientzia kognitiboaren aplikazio praktikoa dira. Hedabideen indarra tarteko, markoek, onerako zein txarre-rako, gure harremanak baldintzatzen dituzte, gure ideiak egituratu, gure arrazoitzeko modua egokitu eta, are, gure hautematean eta jokabidean eragin. Eta, alde horretatik, eremu politikoari dagokionez, gerta liteke, eta gertatzen da, marko jakinak onartzeak arerioaren oinarritzko ideiak ontzat jotzera eta horien propaganda egitera eramaten gaitzakeela maiz, nahiz eta gure arrazoiak defendatzen ari garela iruditu.

Hobsbawmenak bezalako erretolika akademikoak mundua manikeoki antolaten duten markoetan inskribatzen dira, eta hedabideak tarteko bulgarizatu eta eztabaidagai bihurtzen diren neurrian, erreproduzitu egiten dute. Errealitate bat konprenitzeko baino errealitate bat ezartzeko gogo handiagoz, marko honetan hasieratik bertatik azken hitza zein aktoreri zor zaion ezartzen da. Hala, alde batean, estatu propiodun nazioak deskribatzen dira, zeinak arrazionalitatearen eta zentzunaren ondorio eta erakusle baitira; eta, beste aldean, naziotzat onartzerik ez dauden eskualdeetako mugimendu abertzale irrazional eta xenofoboak kokatzen dira, zeinak politikari eta ideologo manipulazileak direla medio, irizpide ahuleko jende xumea txokokeriazale izatera eta sen onaren aurka jartzera eramaten baitute.

Premisatzat interlokutore izan behar lukeena ezereztatu eta txorimalotzat jotzea baitu, ezin esan hau elkarrizketako aukerari gonbita luzatzen dion planteamendua denik. Herrien arteko parez pareko solaskidetzaren aukeraren orde, herri batek besteari zer egin behar duen obediartzea hobesten du eta, hartara, pentsamendu marko bezainbeste da menderakuntzarako tresna. Hein batean, feminismoak mansplaining terminoarekin laburbiltzen duen ariketa sutsua dugu, baina herrien arteko harremanetara aldatua. Eta umorez hartzekoa hobea izanagatik, ez da gutxieteko moduko zerbait. Euskal Herria asmakizun eta gezur hutsa dela publikoki adierazten dutelarik, framing honekin funtzionatuko dizutenen artean, adibidez, espainiarrek demokratikoki aukeraturiko azken hiru gobernuburuak daude (Esparza, 2011:27). Ez gara gure etxe atariko administratzailearen iritziaz ari.

Puntu honetan, beraz, euskaraz alfabetatu eta apurtxo bat ikasitako euskaldun garen aldetik, galde liteke ez ote genukeen hobe izango euskal kultura definitu beharreko aztergaitzat soilik kontsideratzeari utzi eta, txorimalotzen gaituzten marko zaharkituak ganbaran gordeta, aztertzaile kritiko gisa ekitea. Hizketan hasita, euskal identitatetik diskurtso bat saiatzea, norberaren posizioa norbere hitzez esplikatuko duena, eta beste posizio batzuk parez pare aztertu eta interpelatuko dituen.

Asmo honekin, datozen lerroetan hiru ideiaren inguruan arituko gara. Lehenengo, euskal gizartea eta euskal herria<sup>2</sup> ez direla gauza bera azaltzen ahaleginduko gara; eta komeni dela bereizketa hori egitea hizkuntza normalizazioari begira eskubide eta betebeharrak banatzeko. Hurrengo, identitatea ez dela hizkuntza baino inportanteagoa aipatuko dugu, baizik eta biak maila berean, elkar konfiguraturaz ulertu behar direla. Azkenik, indologiaren gaia ere ekarriz, euskal kultura ez dela *cultura vasca/culture basque*-ren parte defendatuko dugu, euskaraz hitz egitea espainolez edota frantsesez hitz egitearen parte ez den bezala.

## Leiarrez

Euskal hizkuntzatik (eta, beraz, hizkuntzatik eratorritako kulturarik) begiraturaz gero, bada hor, airean, arreta ematen duten zenbait itaun. Horietako bat izan liteke ea “euskal kultura euskaraz baino ez den posible, ala espainolez edota frantsesez ere bai”. Galderak joko pixka bat ematen du, besteak beste, *gizarte* eta *herri* kontzeptuez hausnartzera ekar gaitzakeelako. Izan ere, hara beste galdera bat: “euskal herria” eta “euskal gizartea” ahotan hartzean, gauza beraz ari al gara? “Herria” eta “gizartea”, gauza bera al dira?

Oraingoz, esan dezagun leiarrei esker fokatzen dugula begirada eta, inportanteak direla, gauzen definizio argi bat ematen digutelako.

Gurean, “*euskal kultura* euskaraz baino ez da posible, ala...” galderari zenbaitek baietz erantzun izan dio, eta, beste zenbaitek, berriz, ezezko batekin, ezetz, euskaraz baino ez dela posible. Beste askok, berriz, ez dakiela zer esan. Postura baten nahiz bestearen aldeko argudioak artikulatzeko interesa agertu dutenen artean, Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardeg*i-renak eta Ramon Zallorenak har litezke adibidetzat, nahiko ongi ordezkari ditzakete-eta auzi honen inguruan egon daitezkeen posizioak. Lehenengoak, Euskal kultura euskaraz adierazitakoa baino ez zela zioen (Txillardeg: 1984). Ramon Zalloren esanetan, aldiz, Euskal kultura espainolez edota frantsesez adierazitakoa ere bada (Zallo: 2006).

Bakoitzak bere arrazoiak. Zallok, bere ikuspegia defendatzeko, adieraziko du hain zuzen Euskal Herriko hiritarren kultura dela euskal kultura, eta Euskal Herriko hiritarren artean euskararen erabilera ez ezik espainolaren nahiz frantsesaren erabilera ere arrunta eta zeharo zabaldua denez gero, hizkuntza horietan emanikoa ere badela euskal kultura, *geure* kultura. Guztiz bestela, Txillardeg: zenak (1984) argudiatuko du Euskal Herria beste herrietatik bereizten zuen hura zela euskal kultura, eta gaur egun Mendebaldeko beste herrietatik bereizten gaituen ezaugarri kultural bakarra euskara

2 Euskal Herria eta euskal herria kontzeptuak bereiziko ditugu. Euskal Herriak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoak hartzen duten lurraldeari egingo dio erreferentzia; euskal herria, berriz, autoadskripzio baten e maitza da, bere burua euskal nazioaren partaidetzat duen herritarrez osaturiko giza taldeari egingo dio erreferentzia.



denez gero, euskaraz adierazitako horrek baino ezin duela izan euskal kultura, *geure* kultura.

Orduan, zein dago zuzen, eta zein oker? Bada, zein leiarretatik begiratzen den. Edo, zein leiar motatatik zeri nondik begiratzen zaion. Beraz, horregatik, galderari ematen zaizkion erantzunen zuzentasuna edo okertasuna ebatzea baino argigarriagoa izan liteke aztertzea zein diren erantzun arrazoitu hauek ahalbidetzen dituzten kondizioak. Hau da, lagungarri izan litekeelakoan gaude kontuari diskurtsoaren *materialtasunaren ikuspegitik* heldzea, ulertuz, diskurtsoaren kontzeptua hau ez dagoela lehenxeago aipatu dugun *framing*-arenetik sobera urrun (Iztueta, 2015:16,17).

Diskurtsoa nolabait deskriba liteke bi polo dituen zirkulu edo begizta gisa. Diskurtsoa da, esaten eta egiten dugunari zentzua emango dion testuingurua; eta da, aldi berean, esaten eta egiten dugunetik eratortzen den testuingurua (Maingueneau, 1991). Eta, horrenbestez, kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremanari buruzko galdera nahiz galdera horri emango zaion erantzuna bi modutara kontsideratzea eskatzen du ikuspegi honek: hala errealitate sozial baten baitan konfiguraturiko enuntziatu gisa, nola indar performatiboa duen enuntziatu gisa. Gauden lekutik esaten dugu esaten duguna; esanez egiten dugu gauden tokia. Gauden tokitik aditzen dugu aditzen duguna; aditzen dugunaren arabera egiten dugu gauden tokia.

Hau horrela, Zalloren nahiz Txillardegiren argudio bideek errealitate eta asmo diskurtsibo jakin baten baitan kokatuta hartzen dute zentzu osoa. Euskal Herriko gizarte modernoa dela, esan beharrak ere lotsa pixka bat ematen du; bai behintzat Mendebaldeko beste edozein haina. Baina ez genioke egiari mesede handiegirik egingo Mendebaldeko edozein gizarteren egoera kultural anitzetara lerratzen dela esango bagenu (Baxok et al., 2006:153). Ez baita hala. Egongela betetzen duen elefanteari ez ikusiarena egitea bezala izango litzateke.

Izan ere, Euskal Herrian menperaturiko herri bat baitago, bizi deneko gizarte-ari loturiko ezein erabaki politikoren gaineko azken hitza espainiar eta frantses herriei dagokielako. Egoera honetan, ez da bere hizkuntzan adieraziriko kultur bizitza askatasunez birproduzitzeko gai: ezaugarritzen du, ezaugarritzen duenez, gutxiagotzeak, presio asimilatzaileak eta presio honekiko erresistentziak. Eta, hartara, ohartzen gara subordinazio politikorik eta hizkuntza ordezkatze prozesurik bizi ez duten herrietan hizkuntzaren eta herri nortasunaren arteko harremanari buruzko kuestionamendu analogoek esanahi handirik izango ez duten bitartean, gurea bezalako egoeretan berebiziko pertinentzia hartzen dutela, tamalez.

Zentzuz hornitzen edo gabetzen dituzten kondizioetan datza “alemanez egindako kultura frantsesa posible da?” eta “espainolez egindako euskal kultura posible da?” enuntziatuaren arteko ezberdintasuna. Eta, hain zuzen horregatik, batari zein besteei emango zaizkien erantzunen eragina ere ez da inolaz ere maila berekoa izango. Galdera

zentzugabe edo axolagabekoei ematen zaizkien erantzunak, aldi berean, zentzugabe edota inportantzia handirik gabekoak izaten dira. Ordea, hemen auzitan jarritakoari emango zaion erantzunari era batean ala bestean onirizteak ala gaitzirizteak, testuinguru baldintzetan eragin egingo du: nola erantzuten diogun, hizkuntzen -euskararen, espainolaren, frantsesaren- erabilera soziala emendatzen nahiz gutxitzean eragingo duten kondizioak sortzeko aukerak zabalduko ditugu. Eta, bistan dena, zein posiziotatik ari garen, gauza bat ala bestea gehixeago ala gutxiixeago interesatuko zaigu.

Adibidez, gurea bezalako ikuspegi edo ideologia euskaltzale batetik ulerturiko hizkuntzen normalizazioari dagokionez, ematen du biek dituztela bai abantailak bai desabantailak (Iztueta, 2016).

Zalok aldezen duen ikuspegiak integratzailea izatea du abantaila, eta hiritar oro interpela dezakeela. Euskaraz jakin gabe ere “euskalduntzat” errekonozitua izateko aukera zabaltzen dio Euskal Herriko biztanle, hiritar orori. Hortaz, hizkuntzen normalizazioari begira, ona du euskaraz ez dakienari “euskaldun” sentitzeko aukera ematen dionez, euskara bere bizitzaren parte bihurtzeko gogoia elika dezakeela, edota euskaraz ez jakitearen ondoeza arindu dezakeela. Diskurtso honek euskararen auzia gizarte “guztziaren” auzi bihurtzen lagun lezake, eta ez euskaraz egiten duen gutxiengoaren kontu huts. Hau da, zaputzik ez du eragiten, eta gutxiagotua dagoen euskararen ezagutza gizartean zabaltzeko aukera ireki dezake.

Beraz, Zallorena euskararen ezagutzarekin loturik dagoen argudio bidea da, eta euskararen *ezagutza* eskuragarri jartzearekin eta, halaber, hurbileko ez zaionari erakar-garri egitearekin dago lotuta.

Baina desabantailak ere baditu; sendabelar adina izan liteke pozoi. Izan ere, hizkuntza gutxiagotuaren erabilerak behar duen zentzuari azpijana egin baitiezaiokie, eta euskal herritarren artean hizkuntza suplantatzaileen erabilera legitimatu eta naturalizatzeko ere erabil liteke, argudio hau berau: «Neure burua espainolez edota frantsesez adierazirik ere “euskaldun” normala baldin banaiz, zertarako hartu hizkuntza gutxitu bat erabilera hautatzeko nekea? *euskaldun- euskaldunarena* egiteko? *Superbaskito* xelebrearena egiteko? ». Euskaldunegia izatea, ez da errenta.

Zalorenaren aldean, euskaltasuna eta euskararen erabilera estuki lotzen dituen Txillardegiren ikuspegiak, aldiz, eskusibitate du abantaila. Euskal identitatearen eta euskararen arteko lotura espezifikoa egiten duen heinean, euskaraz dakienari korrontearen kontra euskara erabiltzeko (edo erabiltzeagatik ez lotsatzeko) nahitaezkoa den arrazoiak edo zentzua eskaintzen dio (Arratibel et al. 2001). Hau da, euskara erabiltzea harrotzeko motibotzat esplikatzeko du eta, are, normaltasuna bera euskalduntasunaren inguruan eraikitzeako markoa eskaintzen du.

Beraz, Txillardegiren arrazoiak euskararen *erabilerarekin* lotu daitezke, eta euskararen erabilerari euskarria ematearekin.

Desabantaila, berriz, zein du planteamendu honek? Bada, euskaraz dakien eta, zer esanik ez, euskaraz bizi den jendea gizartean gutxiengoa izanik, diskurtso honen irismena mugatua dela, eta euskararekin harremanik ez duten edota, hainbat arrazoi-gatik, harreman erraza ez duten Euskal Herriko hainbat biztanle identitatearen eta hizkuntzaren arteko eskusibotasun kategoriko hau dela-eta zapuzturik eta mindurik senti daitezkeela, normala denez. Edo, besterik gabe, ez direla interpelaturik sentituko: “Euskaraz egiten ez dugunok ez baldin badira euskaldunak, bada hor konpon daitezela *etnizistatzarrok*”.

Horiek horrela, eta erabilera eta ezagutza, hizkuntzarekiko motibazioarekin batera, hezur eta mami direla jakinik, bada diferentziarik nolerebait bi ikuspegi hauetan erdietsi nahi diren helburuen artean. Eta, hizkuntzen normalizazioan aurrera egingo bada, saihestezina dirudi Euskal Herriko heterogenotasuna aintzat hartu eta bi diskurtsoekin zentzuz jokatzen asmatzeak.

Guztiarekin ere, bi ikuspegi hauen artean bada errepasatzea merezi lukeen beste ezberdintasun errotikoago bat ere, sakoneko ideologietarantz igortzen gaituenez gero. Izan ere, ez al du itxura ematen Zallok nahiz Txillardegik abiapuntutzat hartzen duten komunitatearen (*gutasunaren*) ideia ez dela berdin-berdina? Ez, ez dira zehazki gauza beraz ari, eta hala bada, zailago ados egotea. Zallok, euskal kultura eta Euskal Herria aipatzerakoan, *gizartea* du gogoan. Hau da, *hiritarrak* elkarrekin bizi direneko espazio edo harreman sare -eskuarki- administratiboa(k). Txillardegik, berriz, euskal kulturaz eta Euskal Herriaz ari delarik, *herria* du gogoan. Bere burua herritartasun bati autoadskribitzen dion *herritarrez* osaturiko taldea, alegia. Inportantea da bereizketa hau nabarmentzea, *gutasunari/bestetahunari* buruz aritzerakoan erabil ditzakegun marko ideologikoak ezberdinak izan daitezkeela gogorarazten digutelako.

Giza-taldeen arteko harremanak zuzentzen dituzten sakoneko marko ideologiko hauek zertan diren ikasteko, gure ustez, harribitxia da W. Y. Adams maisuaren *The Philosophical Roots of Antropology* (2003) lana. Luzamendutan ibili gabe, esan liteke Adamsentzat ideologiak ongi nahiz gaizki dagoenari buruzko uste aldagaitzak eta sines-te horietan oinarrituriko ekintza sistemak ditugula, eta ideologia hauek, berez, unibertsalak direla. Munduko bazter guztietako jendeen artean aurkituko ditugu. Dena den, Mendebaldean badute bitxikeria bat, eta da arrazionalizazio prozesu baten ondoren, giza eta gizarte zientzietan txertaturik, bere burua legitimatzeko gai diren teoria akademiko-zientifikoen gorputza hartzea ailegatu direla. Ideologiok “zientifiko” bihurtu direla, alegia.

Teoria antropologikoak kokatzeari dagokienez, Adamsek hiru kategorია zabal izendatzen ditu: teoria konparatibistena, bata; teoria partikularistena, bestea, eta teoria unibertsalistena, urrena. Eta kategoría horietan, bost ideologia edo korrante filosofiko nagusi sailkatzen ditu. Hala, lege naturalaren doktrina unibertsalisten kategorian joango da, ideologia honek mundu guztiaren artean bat datorren hori bilatu eta azaldu nahi

duenez gero. Idealismo alemaniarra eta indiologia, ostera, teoria partikularisten zakuan sartzekoak izango ditu, biek ere kultura bakoitzaren kualitate ezberdinak ulertzea izango dutelako xede. Eta proposamen eboluzionista eta primitibistari dagokienez, teoria konparatibisten kategorian sartuko ditu, izan ere, giza-talde ezberdinen arteko diferentziak azaltzerako orduan, talde guztiak lotuko dituen harreman printzipio orokor bat bilatzen baitute, bi ideologia hauek.

Antropologia *Bestearen* azterketaz arduratzen den diziplina izanik, Adamsek txit argigarriki nabarmentzen digunez, teoria mota hauek Bestearen irudia proiektatzeko modu diferentea agertuko digute. Hartara, Bestea, unibertsalistentzat, “Gu” izango da. Konparatibistentzat, “Gu, lehenago” edo “Gu lehen izan ginen hura”. Eta, partikularistarentzat, berriz, “Gu ez garen beste hori” (Adams, 2003: 17-24). Ezin mamitsuagoak dira ideologia bakoitzaren nondik norakoak. Guztiarekin ere, lege naturalaren eta primitibismoaren ideologiak beste baterako, eta indiologiarena lan honen azken parterako utzita, guri oraingoz eboluzionismoaz eta Idealismo alemaniarraz aritzea interesatuko zaigu. Zeren eta esan bailiteke Zalloren gizarteak ematen digun komunitatearen inguruko ideia eboluzionismoaren marko ideologiko konparatibistan txertatzen den bezala, Txillardegiren herriarenak idealismo alemaniarren partikularismoa aipatzea eskatzen digula. Ikus dezagun zergatik.

Idealismo alemaniarra alemanez bizi ziren jendeen artean XVIII. mendean ernamundutako filosofia bat da, adierazi berri dugunez, partikularista, eta garaiko egoera historikoarekin zerikusi zuzena duena. Nahiz eta politikoki zatituta eta teknologikoki atzeratuta egon, herri alemaniarrek ez zuten uste intelektualki eta artistikoki beste inor baino gutxiago zirenik eta, adibidez, sasoiko Frantziar ohi zen gisan ezaugarri politikoak eta materialak goetsi ordeztu, lorpen intelektualak eta artistikoak nabarmentzen zituen ikuspegi filosofiko bat garatu zuten. Estatu egitura komun batetik ezin, eta hizkuntzatik esplikatu zuten herri izaera. Ingurumaria honetan garatuko da *Volksggeist* delako herri izpirituaren ideia ospetsua eta, arrastoan, herri nortasunaren adierazpen aratza hor aurkitzen zelakoan, baita kulturaren esanahia herri xehearen bizimoduarekin eta tradizioekin lotzen duen iritzia nahiz uste honi loturiko jardun etnografikoa ere (Adams, 2003:346,347).

Eboluzionismoa, aldiz, giza kondizioaren aldaketa gradualaren ideari erantzuten dion ideologia da. Eboluzionismoak aldaketa hau beti zahar okerragotik berri hoberako doan zentzuan konparatzen du eta, hartara, ideologia hau bere egiten duten herrien artean, munduari begira jartzerako orduan halako *continuum* bat antzeman ohi da, erdigunean jar daitezkeen herrietatik abiatuta, naturarekin nahasten diren herrietaraino mailakaturaz urruntzen den errenkada baten modukoa. Hau horrela, esan liteke giza taldeei erreparatzerako orduan, ideologia eboluzionistaren leiarretik herritartasun ezberdinak baino, funtsean, zera ikusten dela, Historiaurretik Aro garaikideraino datorren gizarte antolamendu ezberdinen etapa jarraipen eskalatu bat. Kasuan kasuko taxua hartu-

rik, eboluzionismoaren ideologia hau legoke, esaterako, Ilustrazioaren, marxismoaren edota, nola ez, darwinismo sozialaren teorien muinean. Tesi honen inguruan jaio zen, halaber, XIX. mendearen bigarren erdiko misio kolonizatzailearen abaroan mundurik mundu herri primitiboak deskubritzen arituriko antropologia.

Baina, hemen kontua da zein bere aldetik hartuz gero interesgarriak baldin bada, bi ideologiok elkarri inguratzen zaizkionean are interesgarriago gertatzen direla. Batentzako gizartea, bestearentzako herria, nahiz eta Idealismo alemaniarren eta eboluzionismoaren jatorrizko interesak berdinak ez izan, tradizio hauek, bakoitza bere kasa joan ordez, elkarren inguruan konplexuki txirikordatuz garatu dira. Zenbaitetan oposizioan agertuko zaizkigu, hala nola herri baten kualitate bat -demagun hizkuntza- gizartearen aurrerabiderako oztopotzat hartu denean edota, alderantziz, gizarte aldaketak – demagun, laikotasuna- herri baten *izaeraren* aurkakotzat jo izan direnean. Eta beste zenbaitetan, berriz, halako sinkretismo moduko bat praktikatzat aurkeztuko zaizkigu. Sinkretismo kasuetan ezagunena, Edward Tylorrek kulturaz emandako definizio kanonikoa:

«Kultura edo Zibilizazioa, zentzu etnografiko zabalenean ulerturik, gizon batek gizarteko partaide den heinean hartzen dituen jakintza, sinesmen, arte, moral, lege, usadio eta beste ezain gaitasun eta ohitura barnebiltzen dituen zera konplexua da.»

(Tylor, 1858:1)

Kulturaren definizio hau liluragarri samarra da, formulatua deneko moduari esker pentsamendu modernoan “kultura”, “herri” eta “gizarte” nozioen arteko baliokidetasunari kategoria akademiko-zientifikoa ematea erdiesten duelako. Onarpen hau-tsiezinekoa, ia. Hartu batetik positibismo zientifikoa, heldu bestetik eboluzionismo ilustratuari eta lotu handik idealismo alemaniarra: esan liteke Tylorren definizioak, zientziaren izenean, sasoiari gizarte eboluzioaren goren gradua ordezkatzeko zuten Estatu-nazioen (eta inperioen) marko zibilizatzaileari *Volksggeist*-aren zentzuz koneskratzen duela. Bestalde, sinkretismo honen korrelato politikoaren ildoan, partikularismoaren eta konparatibismoaren batuketari, gero, halako sasi-unibertsaltasunaren ideia nola gehituko zaien ikusi beharko dugu, gisa honetan herrien asimilazioa Gizakiaren aurrerabiderekin lotuz (Iztueta, 2015:90). Oinarri horien gainean, eta arrazionalizazioaren izenean, Hobsbawmen moduko hainbat eta hainbat naturaltasun osoz iritsiko da «Besteak Gu izan behar du, hori da lege naturala» ondorioa.

Alde batetik Idealismo alemaniarraz aritu gara; bestetik, eboluzionismoaz. Egia esan, Estatu-nazio diren herrien posiziotik, bi ideologion arteko bereizketa egitea hain interesgarria ez da, subiranoak diren heinean, praktikan ongi datorkielako testuinguru horietan *estatua*, *gizartea*, *herria* eta, bide batez, *kultura* kontzeptuei balio bertsua eman eta elkarri gainjartzea. Alabaina, ezin gauza bera esan Euskal Herriaz ari garelarik.

Guretzat aski komenigarria dirudi ez soilik ikuspegi hauek bereizteak, baizik eta biak elkar osatuz azaltzea. Eta komenigarria da, bestela, errealitatea distortsionatzeko arriskua izan dezakegulako, ohikoan saihestezina den hori guztia baino apur bat gehiago.

Izan ere, kontuan hartu behar da Euskal Herria deritzogun lurraldean bizi den populazioa herri eta gizarte ezberdinetan dagoela banatua. Hara hor Estatu espainiarraren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoa, bere probintziekin, eta Nafarroako Foru Erkidegoa. Eta hara hor, Estatu frantziarraren izkina batean, orain, Euskal Mankomunitate deituriko Xilaba<sup>3</sup>. Zenbat administrazio eta azpi-administrazio eremu, hainbat gizarte eta gizartetxo. Bestalde, berriz, beste hainbeste herri atxikipen edo sentimendu nazional ere badauzkagu, gutxienez. Autoadskripzioaren arabera, biztanleak hiru grabitate zentronen inguruan barreiatzen dira, zeinen arabera, bere burua euskal herritartzat daukatenak ezagutzen diren, eta -mugaren alde banatan- bere burua espainol nahiz frantses gisa izendatzen dutenak ageri diren. Hara hor kopuruz, han gehiengo, hemen gutxiengo, bestean pareko, espainolak, frantsesak, euskal herritarrak.

Horrenbestez, euskal herria eta euskal gizartea ez dira gauza bera. Euskal Herriko lurraldean bizi diren hiritarrak eta euskal herritarrak bereizi behar dira. Euskal Herriko hiritarrak Euskal herrian bizi diren horiek guztiak ditugu, euren herri atxikipena edo sentimendua zeinahi delarik ere. Eta euskal herritarrak, berriz, jatorria nahiz hizkuntza zeinahi duelarik ere, bere burua euskal herritartzat jotzen dutenak, herritartasun hori ezein espainiartasun edota frantsesetasunen menpeko aldagaitzat onetsi gabe.

Komunitatearen ideia inguruko bereizketa hau egitea emankorra da, paradokiki, biak ere elkarren osagarri direla ulertzen lagun diezagukeelako. Gehiegizko luxua da, Estatu propiorik gabe, eta hizkuntza ordezkapen prozesuan sartuta, bietako bat aintzakotzat ez hartzea. Eta, gainontzean, leiar kontua da.

*Herriaren* leiarretik soilik begiratuz gero, eta *gizartearen* parte garena aintzakotzat ez hartzeak, Euskal Herria bezalako lurralde batean nahasten diren ibilbide eta esperientzia ugariak kontuan ez hartzera eraman baikaitzake. Horrek dakarren arriskuarekin. Hau da, norberarenak ez diren herri atxikipenak ez errekonozitzea, gutxiestea eta herri ezberdin horiekiko harremana kudeatzeko herronkari ezikusiarrena egitera; are, zenbaiten gogoan, arbuioa elikatzea.

Aitzitik, euskal herria Estatu propioa ez duen herria izanik, *gizartearen* leiarra soilik baliatu eta herri kontzeptua bazterteak euskal kultura, praktikan, kultura estatalaren baitako subkultura autonomikoen baitako subkulturatzat tratatzeko markoa jartzen du. Herri kontzeptuari uko eginez gero, euskarazko adierazpena edota euskal herritartasunak definituriko nazio sentimendua hiritarren arazo edo hautu indibidual izatera lerratzen da, berez bezala. Edota, gehienez ere, Estatu mugek definituriko gizarteko komunitate baten adierazpen apolitiko eta estetiko partikular gisa uzten da,

3 XiberuaLApurdiBAxenafarroa.

estatuak promozionaturiko erdal kultur adierazpen publiko zein pribatu “nazionalen” normaltasunarekin nahastu ezin dena. Eta ez dago jeinu soziolinguistikoa izan beharrik baldintza horietan hizkuntza gutxituak – eta barka oieskeria- kilkerraren potroak baino etorkizun beltzagoa izango lukeela ohartzeko.

Hain zuzen, eta oieskeriak oieskeria, osagarritasunaren ideia hizkuntzen normalizazioaz aritzeko ere dugu beharrezko. Batetik herritarren herria eta, bestetik, gizarteko hiritarrak izendatuz, besteak beste, hizkuntzekiko zenbait eskubide, betebeharrak, harremanak, diskurtso ordenatzeko eta argiago identifikatzeko aukera eskaini diezagukeelako.

Hizkuntza ordezkapen eta erresistentzia egoerak gora-beherak eta ezegonkortasunak ezaugarritzen dituela jakinik, argi dago normalizazioa zertan datzan zehazterako tenorean kontuz ibili behar dela. Nolanahi den ere, egungo egoeran honelako formulazioen baten alde geundeko: hizkuntzen nolabaiteko normalizazioa iritsiko dela, gizarteko harremanen *continuum* aberatsaren baitan, *herritar* bakoitzak bere herriaren hizkuntza *erabiltzeko hautua* egiteko joera lukeenean, eta bizikidetzak eta zibismoak hala eskatzen duelako, gizarteko *hiritarrek* “beste” hizkuntza *ezagutuko* luketenean, hura behar den guztietan gainontzeko hiritarrekin erabiltzeko eragozpenik izan gabe, noski.

Ohargarri denez, erabilera herritartasunarekin eta ezagutza hiritartasunarekin lotzen dituen adierazpena da. Eta, jakina, batera doazen eta ezinbestean elkar osatzen duten baldintzak planteatzen dira. Zeren eta, lehenengo eta behin, ongi gogoan izan behar baita hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko askatasuna solaskide dugun auzoaren ezagutzak edo ezagupenik ezak determinatzen duela. Elebakarra bada, erabili nahi dugun hizkuntza hautatzeko askatasunik ez dio eskainiko aldamenekoari. Bigarrenik, berriz, era berean, egunerokoan euskal herriak euskaraz aritzeko hautua egitea ere beharrezkoa da, espainolek espainolez eta frantsesek frantsesez egin ohi duten bezala.

Formula honen argitan, normalizazioari gaur egun erasaten dion eragozpen oinarrizkoenetako bat, nolabait esateko, “euskaraz ez ikasteko eskubidea, eta espainolez/frantsesez aritzeko betebeharra” bermatzen duten politika eta neurri zeharo inzibikoak genituzke. Egungo gutxiagotze egoerara ekarri gaituzten kondizio ideologikoak, azken batean. Eta, honekin loturik, baina beste maila batean, berriz, bere burua euskal herritartzat aldarrikatu eta euskaraz aritzeko aski maila duen lagun askoren artean hedaturiko erdarara jotzeko habitus-a, baita euskaraz aritzeko baldintzak ematen direla dirudienean ere. Benetan tamalgarria da, hain zuzen euskal herritarren arteko erdararen erabileraren naturalizazio hauxe bera, ezagutzaren unibertsaltzeari bidea ixteko argudio bihur litekeelako. Izan ere, itxuragabea baita besteri norbera egiteko prest ez dagoen ahaleginik eskatzea: “zertarako hartuko dugu ba euskaraz ikasteko lana, euskal herritarrek eurek ere nahiago izaten dute eta espainolez/frantsesez aritu?”

Baina inertzia hau ez da ez hutsetik sortu. Eta ez da hutsean mantentzen. Gizarteko botere harremanen eta hizkuntzen subordinazio harremanen historia bate-

tik eratorririko azken ondorioetako bat da, eta jorratu beharreko dimentsio bat baino gehiago ditu. Habitus honek gordintasunez ere interpelutzen gaitu, muturren aurrean zintzilikatzen digulako esentzialismoa vs antiesentzialismoa delako antagonismoaren marko ideologikoa, hizkuntzaren eta identitatearen arteko erabilera asoziatuak ez dardela, ez dutela zertan egon, eta, are, ez dutela egon behar, ezartzen duena.

## Begiztaz

Hizkuntzari inportantzia emateak “gu” bati inportantzia ematea inplikatzeko du, ezinbestean, hizkuntza bat hiztunek elkar hiztuntzat errekonozitzen duten praktika kolektiboa delako; baina talde identitateari - *gutasun sentimenduari*- inportantzia emateak ez dirudi beti hizkuntzari inportantzia ematea dakarrenik. Zenbaitentzako, behintzat, identitatea hizkuntza transzenditzen duen zerbait da, eta hizkuntza, aldiz, identitatearekiko “erlatiboa”. Euskal Herriari dagokionez, Mikel Azurmendiren galde-erantzunak oso egokiro erakusten digu hizkuntza identitatearekiko “erlatiboa” dela irizten dion hipotesi edo ideologia honek har lezakeen arrazoi bideetako bat:

«Hagámonos ahora la pregunta: ¿qué pasaría si se diese un mañana en el que no haya vascos que hablen euskara pero que sí sigan creyendo y llamándose a sí mismos vascos? Pues que si los vascos deseasen así, seguiría existiendo el Pueblo Vasco, de la misma manera que existe una Irlanda sin gaélico.»

(in Izagirre, 2010: 254)

Ohargarrienez, *Pueblo Vasco* delakoaren etorkizunaz kontsolatzen duen pasarte honen ezaugarri politetako bat da - ez alperrik- derrigorrez espainolezko jatorrizko bertsioan utzi beharra dagoela, zentzu osoa galduko ez badu. Baina, txinparta honetaz gain, M. Azurmendiren formulazioak gaur egun ere gure artean itxi gabe dagoen auzi bat arazki kokatzeko bertutea ere badu: Euskal hizkuntzaren eta *gutasun sentimenduaren* arteko harremanari buruzkoa. Aurreratu bezala, oraindik orain hainbat zalantza zaharberritzen zaizkiguneko eztabaida dugu; eta ez, horratik, atzo goizekoa. Begira bestela, duela berrogeita bost urte baino gehiago, Txillardegik berak idatzitako beste pasarte honi:

«Euskeraren beharra txikitu nahirik (edo beren buruaren erdaltasuna estali edo garbitu nahirik ere ez gutxitan...) gaztetandik entzun izan ditut, behin eta berriz, zenbat “abertzaleren” (?) ahotatik, “zakuzale”en ideien bilduma jatorrak. Hunela mintzo dira, gutxi gora behera: “Bai, euskera inportantea da, noski. Baña, egia esateko, zer axola du “zaldi” soiñua edo hotsa emateak (z+a+l+d+i), ala bere ordean “caballo”ren soiñu-zerrenda emateak (c+a+b+a+l+l+o). Ahoa, edo mingaiña, edo sapaia, huntara edo hartara jarri; eta, zer? Hortaz kanpo, zer? Askotan esan ohi da herri baten arima dala hizkuntza; baiña hori gehiegi esatea da. Hots-sorta batek, soiñu-multzo batek, ezin dezake herri baten arima eman. Hori miraria litzateke.»



Okerragorik ere ez dugu falta: ‘hizkuntza galduta ere, gure ohiturak, gure folklorea, gure izaera, gure pelota-jokoa hor gelditzen dira’... Edo, sasi-ezkerarren alderdian: ‘herririk ez dago, klaseak daude soilik. Hizkuntzaren gora-beherak kapitalistek asmatuiko sasi-problema dira’...

Gure hizkuntzaren etsaiak, hortara, ez dira urri. Eta batzutan zalantza ere sor ditezke gugan: ‘ez ote naiz ni pikuan bizi? Ez ote da nere euskaltzaletasun hau eroldi huts bat?’

Euskaltzaleok, horrela, izuti gera geure herrian; eta geure hizkuntzaren aldeko burrukan, lotsatu egiten gera pittin bat.

Eta bestetik, askotan egiten dugun burrukak, zahar-kutsu bat eta negar-giro bat du. Gure aldeko saioak eskuin aldetik egiten ditugu, eta ahultasuna nagusitzen da. Fenomenu hau oso sakona da, eta Euskal Herri’ko marka izana da azken mende huntan.

Ez dugu euskaltzaleok, ordea, bildurrez ibilli beharrik. Gaurko hizkuntzalaritza osoa gure alde mintzo da. (sic)»

(Txillardeggi: 2004a:68)

Esaten hasita, ziur aski Mikel Azurmendirenari iradoki lekiok ez duela doitasun sobera handirik agertu hitzak aukeratzeko garaian, zer-eta irlandarren hizkuntzarekiko ezina, aukera falta erreala edota hipoteka historikoa desio-ariketa gisa aurkeztera ausartu denerako. Eta aldamenean jezarririk xuxurlatu ere egin lekiok ea ez ote duen suplantazio ariketa txiki bat saiatu naturaltasun osoz “vasco” delakoa euskaldun balitz bezala pasarazterako orduan. Baina, marmarrean jarraituta, eta perspektiba pixka bat hartuta, egia esan, probetxu handiagokoa dirudi Txillardegiren testuan aipatzen diren “zahar kutsuez” eta “eskuin aldeko saioez” eta, bereziki, “ez ote da nire euskaltzaletasun hau eroldi huts bat?” bezalako arbintasunei erreparatzea. Batez ere azken honek, gure auziak honezkero aurkezturiko framing edo diskurtsoaren gaiarekin zerikusirik izan dezakeen zantzu argi samarrak eskaintzen dizkigu, guk uste.

Diagnostiko bat egitekotan, hegemonikotzat jo litekeen ideologia batek baldintzaturiko dilemaren kasua dela esan liteke, bai Azurmendiren bai Txillardegiren lerro hauen artean aurkitzen duguna. Gurutze beraren aurrean, zidor ezberdinen alde egiten dute autoreok. Baina – hadi hemen-, kuestionatzen ez duten pentsamendu marko baten baitan. Hain zuzen, galdera honek zedarritzen duen markoan: “euskal hizkuntza ordezkaturik balitz, orduan gure identitatearekin zer?”. Identitatearekiko larritasunean habetzen den framing-a da hau.

Dilemari dagokionez, esan dezagun, hizkuntza ordezkapenik indarrean ez balitz, euskal identitatearen eta euskal hizkuntzaren inguruko dilema handirik ez legokeela, noski. Euskal hizkuntzaren erabilera normalizatua balitz egongo ez litzatekeen bezalaxe. Ez behintzat, urrutitik ere, bizi duguna bezalakorik. Baina dagoen bezala dago asuntua, eta, hara hor, Azurmendik agertzen eta Txillardegik salatzen duen emaitza ziurrik gabeko ahaleginetik eratorritako duda-muda edo fede txakalaldia: hizkuntza gutxiago-

tuaren erabilera normalizatzeke neke luzeari aurre egiteak merezi duen ala ez, alegia. Kinka honen inguruan dabilta arestiko pasarteetako arrazoiak.

Ez da zalantza harrigarria. Izan ere, normalak dira egoera sozial bat eraldatzeko posibilitatearen aurrean balio moralen eta balio horien neurriko errealtate bat lortzearen inguruko kalkuluak agertzea. Eta normala da, halaber, kalkuluak atera ezean, aldiari aldiari, balio moral horiexen inguruko errebisioak ere azaltzea, eta hasiera batean desira gaitz dena, onargarri eta, are, ideal bihurtzea (Therborn, 1987). Horregatik esplika liteke, esate baterako, espainol, italiar, greziar batentzat pentsaezina eta moralki onartezina litzatekeena (to, italiarrik gabeko italiarrez populaturiko Italia; to soberaniarik gabeko Grezia!), zenbait euskal herritarren artean normal, komenigarri edota desiragarritzat hartzea.

Eta zalantza borobiltzeko, antza denez, hizkuntzen inguruko dilema moral honi kalkulatu izaterako orduan xeble samar bihurtzen duen tolesdura bat gehitu behar zaio. Neurolinguistikaren eremutik aditzen denez, dilema zein hizkuntzatan formulatzen den, eskuarki horren eraginpean egoten omen da burutuko den hautua. Dilema etiko bat ebazterako unean, norbanakoak hizkuntzarekiko duen inplikazio emozionala nolakoa, emozioaren ala arrazoiaren pisua ere halakoa izaten da (Costa, 2014). Eta, hizkuntzari dagokionez, zein herren hobetsi, emozionala dirudiena, ala arrazionala dirudiena? Hizkuntza gutxituaren bidegurutzea ezin saihestuzko dilema da, eta litekeenez iraungo du, bere gorabeherekin, erantzun performatiboak jasoz, harik eta aukera erreallik uzten ez duen etorkizunaren helduerarekin lausotuko den arte, izan hau ordezkapen erabatekoa, izan hizkuntzaren normalizazioa arrakastatsua.

Diagnostikoa, gure ustez Azurmendirengan eta Txillardegirengan aurkeztzen den dilema hau ideologia hegemoniko batek baldintzaturik dagoelako iritzia ere agertu dugu. Hegemonia, hitz batean, ideologia batek ideologia izateari utzi eta gizarteko jendartearen gogoan sen onaren tokia hartzen duen puntua da; onerako zein txarrerako. Eta kasu honetan, ideologia jakin baten hegemonia, dilemari buruzko gogoeta konprometitzen duen pentsamendu marko eztabaida ezina da; diskurtsoa edo, nahiago bada, frame delakoa. Hegemoniaren aurrean, oinak lurra ukituz ibiltzen ikasi duenarentzat, nekeza da haren kontra pentsatzea norbere buruari pikuan ote den ala eraldiren batek jota ote dagoen galdetu gabe. Eta, halere, batzuetan, komeni da.

Kontua da Txillardegiren eta, partikulariki, Mikel Azurmendiren hausnarketak inplizituki identitatearen eta hizkuntzaren arteko hierarkia harremana ezartzen duen markoari atxikitzen zaizkiola. Hau da, biak ere identitatearekiko hizkuntzak duen tokiaz itauntzen duen galderari erantzuterako prestatzen dira, horrela inplizituki onartuz hizkuntza identitatearen zati gutxi-asko inportante gisa kontsideratu behar dela. Maiz, hartutako abiapuntuak berak konprometitzen du ailegatuko gareneko ondorioa eta, galderak abiapuntu izaten diren heinean, hala gertatzen da oraingoan ere. Identitateak (gutasun sentimenduak) hartzen du axola duen subjektuaren papera, eta hizkuntzari

objektuarena uzten zaio. Teoriaren epaimahaiaren aurrean, ondorioz, hizkuntza bere garrantzia erakutsi beharko duen auzipeko objektu – isildu- bihurtarazten da.

Baina –beste abiapuntu bat jartze aldera, hau tokatzen baita galdetzea-, non ebartzi da identitateari inportantzia ematea hizkuntzari inportantzia ematea baino inportanteagoa dela? Zuzena al da nola edo hala iraunarazi beharrekoa edo iraunarazi nahi duguna gure identitateak direla ontzat jotzea eta, hartara, adibidez gure hizkuntzak identitateari iraunarazteko baliabide hutsak baino ez direla ondorioztatzea?

Ez, guk uste. Abiapuntu posible bat da. Baina ez bakarra, ez derrigor onena, eta, nolana den ere, osatu beharrekoa. Eta, osatu ere, identitatearen eta hizkuntzaren arteko hierarkia gaindituz. Begizta batekin. Ea jarraian ideia txukun samar hornitzen asmatzen dugun, horretarako Nilo ibaiaren sorbururaino bertarainoko sestretan Livingston esploratzailea bezala galdu beharrik izan gabe.

Hau bezalako testu akademikoak bakardadean idatzi ohi dira, baina beste testu edo ahots batzuekiko elkarrizketa bere modura hurbileko baten bila beti. Lehenago beste bakarti batzuek plazaraturiko ideiak gogoan aritzen da bat, zuzenean edo zeharka, horien alde, protestaka edota ñabardurak sartze aldera. Eta geroago baten batek elkarrizketari helduko dion esperantzan ere bai, horrela aurrerabide bat izango delakoan, eszenatokiz mudatuko garelakoan. Elkarrizketa luze honetan, bere garaian Joxe Migel Barandiaranek “etnia” kontzeptua sartu zuen, hark ere aurrekoek zer zioten aditu ondoren. Eta ematen du Azurmendiren arrazoibidea ere Barandiaranekin testu arteko solasera batu nahiarekin lotu beharko dugula. Izan ere, bere argudio bideak, atalaren sarre-rakoan eman dugun pasarteko horrek, Fredrik Barth antropologoari ikasia-edo dirudi.

Ez da edonor, Barth. *Ethnic Groups and Boundaries* (1969) lanean, berari zor zaio ordura arte Barandiaranek eta bera bezalako beste hamaikato antropologo, historialari eta abarrek erabilitako “etnia” kontzeptuaren birformulatze arrakastatsua. Honezkero klasikotzat jo litekeen tesian, Barthekek identitate etnikoa gizataldeen arteko kultur mugen negoziatuetatik eratorritako hori dela planteatzen du, eta ez ezaugarri jakinez osaturiko kultur gaien zerrenda bat. Hartara, Barthen iritziz, identitatea taldearen mugetan bilatu behar da, ez mugen barruan, Barandiaranek edota, XIX. mendean, Tylor berak uste bezala. Are gehiago, ariketa bat ere izango da, identitatea: beste etnia batzuekiko hartu emanean berezitasuna ezarriko duen muga identitarioari euste aldera, gaur kultur gai bat eta bihar beste bat nabarmendu eta promozionatuko dute etniek.

Adierazi bezala, Barthekek etniaren definizioa muga – *boundary*- gisa ulerturiko identitateetan aurkituko du, ez identitate horri eusteko negoziatioetarako erabiliko diren janzkera, erlijio, usadio, hizkuntza eta Tylorrek zerrendaturikoak bezalako bestelako kultur gai zehatzen multzoan. Beraz, Barthekek “etnia” delako subjektu politikoa eta identitatearen nozioa, praktikan, berdindu egiten ditu. Eta kultur gaiak, aldiz, Barthekek

berak aski esanguratsuki aukeraturiko hitzekin jartzearen, identitatea zedarritu eta, on-dorioz, irauarazteko baliatu beharreko *stuff* huts kontsideratzen ditu.

Ikus daitekeenez, Barthekek oso ongi erantzuten dio hizkuntzak identitatearekiko zein toki betetzen duen galderari. Eta erantzunarekin, gure iritziz, baita kultur gaiek identitatearekiko zein toki duen galderak berarekin daraman hipotesi inplizitua tesi gisa erreproduzitu ere.

Nilo ibaiaren sorbururantz apur bat gehiago urrunduz gero, berriz, bakardadean burutzen diren horietako beste elkarriketa zabalago eta beroago batetara ailegatuko gara. Elkarri imintzioka aurka egiten dioten *esentzialisten* eta *antiesentzialisten* artekoa, alegia. Izan ere, bi posizio antagoniko hauen artean inskribatzen baita Barthen plan-teamendua, eta bi posizio hauen arteko antagonismoaren baitan ulertu behar baitira, halaber, Txillardegik “zahar kutsuen” eta “eskuin alderako” jarrerren inguruko salaketez egindako aipamenak.

Ezagun denez, mutur batean, identitatea azken batean sentimenduarekin edo borondatearekin lotzen duten teoria antiesentzialistak dauzkagu, eta bestean, berriz, identitatea objektiboak diren ezaugarriek determinatzen dutela dioten esentzialistak, hau da, lurraldeak, larruazalaren koloreak, hizkuntzak eta abar. Antagonisten arteko elkarriketa honi gatza eta piperra, berriz, posizio teoriko bakoitzari berez bezala esleitzen zaizkion balore politikoek jartzen diote. Zeren eta horixe baita, izan ere, identitatearen funtsari buruzko antagonismo honen ezaugarri ohargarrienetako bat, nola bata bestea eta honek hurrengo berez inplikaturiko balu bezala, gogoetei automatikoki bestelako nozio, ideologia eta balio batzuk ere erantsi ohi zaizkien.

Ez da sekretua: esentzialismoa aldezte atzerakoitzat jo ohi da; eta, alderantziz, antiesentzialismoa gogo irekitasunaren ikur gisa haizatzen. Gero, arrastoan, identitatea eta sentimendua lotzen dituen ikusmoldea, besteak beste, “unibertsaltasuna”, “gizartea”, “arrazoia” edota “borondatea” bezalako nozioekin lotzeko joera izango da eta, tolerantzia edota elkartasuna bezalako balio aurrerakoiak suposatuko zaizkio. Aitzitik, identitatea ezaugarri jakinen baldintzapean jartzen duten iritziak “partikulartasuna”, “herria” edota “mistika” bezalako nozioekin elkar harturik iritsiko zaizkigu sarri eta, aurkakorik arazoitu ezean behintzat, bazterketaren, beldurraren eta itxikeriaren gisako balio eta jarrera “zahar kutsu” eta “eskuin aldekoak” leporatuko zaizkio.

Eta zer esan, topeka honen aurrean? Bada, praktikotasun hutsaren aldetik begiraturaz gero, identitateari buruzko bi uste hauei arestian aipaturiko balioak automatikoki eransteak, zenbait tokitan, zenbait kasutan, osasuntsua eta mesedegarria ematen duela, zalantzarik gabe. Baina beste zenbait tokitan eta beste zenbait kasutan problematikoa eta injustu samarra gertatu ahal dela. Eta, hortaz, ziur asko, onena asoziazio kate hauek konbentzioak direla ez ahaztea izango dela, zeren eta dogma bihurtuz gero, handia izan-

go baita inguratzen gaituenaren epai manikeoan eta zabarkeria intelektualean erortzeko arriskua.

Uler gaitezen, har dezagun, esate baterako, Frantzia. Hizkuntza frantsesaren erreproduktzio soziala bermaturik dagoen eta auzi ez den Frantzia batean, zenbait kasutan, identitatea borondatearekin lotzen duen diskurtsoaren balorazio positiboa benetan estimatzekoa izan daiteke. Begi bistakoa dirudi honek kolonia izandako lurralde arpi-latuetatik metropolira iristen den jendearen kasuan. Frantses hizkuntzarik, azal zuririk eta kristautasunik gabe, ezer gabe, bizi hobe baten bila dabilen jendeari frantsesastuna –eta, ondorioz, eskubide zibilak- euren frantses izateko borondate hutsaren arabera aitortu behar zaizkiola defendatzea gauza ona da: gizabidea da.

Ordea, aipatu bi muturrak bereizten dituen planteamendua problematikoa gerta liteke beste testuinguru batzuetan. Adibidez, Euskal Herriak edota Kataluniak bezala, estaturik ez daukaten nazioetan. Halakoetan, sarri, integrazioaren auzia hizkuntza ordezkapenak dakarren asimilazioarenarekin batera aurkezten zaigu. Eta ikusten da integrazioan lagun dezakeen antagonismo hauxe bera, besteak beste, hizkuntza gutxituaren aurka erabiltzen dela, hizkuntza hegemonikoaren normalizazioa “irekitasunarekin” lotuz, eta herri nortasuna eta hizkuntza gutxitua estuki bat eginik doazela defendatzea “itxikeriatzat” salatuz.

Eta ataka hau, ezin esan posizio euskaltzalea mantendu nahi duenarentzat eroso denik: alde batetik, gogo motz aurpegia, lehen mailako eta bigarren mailako auzien artean bereizten ez jakiteagatik; eta bestetik, gainera, identitatea hizkuntzan ikusten tematzeagatik, esentzialista zahar kutsu eta atzerakoi. Arraioa.

Eta, zer egin, Nilo ibaiaren parte honetara iritsirik? Bada aukera bat bertan gelditzea da. Eta beste bat, herstura txikiok filosofia apur batez hartu, eta honaino ekarri gaituen bidea desegitea izan liteke, planteamendu teoriko alternatiboak zirriborratuz, harik eta abiapuntuko galderara iritsi arte. Inork, egiten ari dena utzi, eta elkarriketa luzatzen jarraitzeko gogorik izango balu ere.

Diana Fuss eta Andoni Olariaga hartuko ditugu itzulera honetarako bidelagun. Diana Fuss esentzialismoa vs antiesentzialismoari dagokion geltokiraino itzultzeko; izan ere, bere *Essentially Speaking* liburua (1989:1-29) zeharo lagungarria baita manikeismoarekiko distantzia apur bat jartzeko. Andoni Olariaga, berriz, identitatearen eta kultur gaien arteko harremanaren abiapuntuko auzira iristeko, erlatibismoaren inguruko bere azalpentxo batek utzitako aztarnek atzera ere Barthen plazan sartzeko norabide argia eskaintzen digute-eta. Goazen, beraz.

Antiesentzialismoa vs esentzialismoa ahakarrean “berezkoa” hitzak dauka antagonismoaren giltza. Esentzialistarentzat, ordena eta gizarte praktikak *berezkoa* den horrek determinatzen dituen bitartean, antiesentzialista edo konstruktibistarentzat, hain zuzen gizarte praktika horiexen emaitza gisa ulertu behar da delako *berezkotasuna*.

Bada, hasteko, Fussek oposizio hau urtu egiten du, arrazoituz konstruktibismoa, azken batean, esentzialismo mota sofistikatuago bat baizik ez dela. Aldea esentzialismoak eta kontruktibismoak “berezkotasunaren” muga jartzen duteneko tokian dago, diosku. Soilki adieraztearren: esentzialista batentzat arrosa batek, beste izen bat balu ere, *berrez arrosa* izaten jarraituko lukeen bitartean, kontrukzionista batentzat, teorian, larrosa batek beste izen bat balu, izenak adierazten duen hori izango litzateke, ez “arrosa” bat. Haatik, dio Fussek, esentziaren ideiak bietan dirau: lehenengo kasuan *izanean* aurkituko genuke; bigarrenean, berriz, esentziaren ideia *izenera* aldaraziko litzateke.

Gero, manikeismoaren aurka, esentzialismoa beti eta edonon erreakzionarioa delako salaketa burutzea bera ere jokaera esentzialista dela ohartarazten du Fussek, azken batean, esentzialismoaren ideiar berari zera aldagaitz eta zehatz bat – esentzial bat- aurreiriztea eskatzen duelako. Esentzialismo delakoak *berezkorik* ezer ez du, diosku Fussek. Esentzialismorik baldin badago, egon, hura ez da *esentzialki* ez txalogarria ez gaitzesgarria izango, ez aurrerakoia ez atzerakoia, ez onuragarria ez arriskutsua. Begiratu beharrekoa bestea izango da, esentzialismoa – eta antiesentzialismoa - nork, noiz, non eta zertarako erabiltzen duen. Talde hegemonikoen eskutan, dominazio ideologikorako tresna erasokorra izan litezke; subordinatuen kasuan, berriz, zapalkuntza egoerak definituriko errealtatearekin lehiatzeko sorkuntza iturri.

Euskal Herrian bertan, esan egiten da, bai, euskal identitatea ulertzeko erak anitzak direla eta, esentzia delakoen iraupenez ez, baizik eta Euskal Herriko hiritarren identitateen eraikuntzaz aritzea dela komeni. Eta nola ukatuko dugu, bada, norbanakoaren autonomiaren aldeko aldarria, inori opa lekioken lorpenik ederrena da-eta. Horixe baietz. Baina, talde nortasunei buruz ari garelarik, ez dezagun gai hau hitz beste egiteko erabili: denok dakigu eraikuntza lan pertsonal hori egitekotan, arau esentzial batzuk betetzera derrigortuta egin beharko dela gurean: esan nahi baita, gutxienez, hizkuntza espainola/frantsesa onartzen den bitartean, espainol eta frantses identitateei subordinatzen zaien bitartean, eta Estatu espainiar eta frantziarreko muga administratiboak zalantzan jartzen ez diren bitartean. Ulerkerak eta ulerkerak izango dira, noski; baina tenorea iristerakoan, baita marra gorriak ere.

Beste maila batean, kultur gaien eta identitatearen arteko hierarkiari dagokionez, Andoni Olariagak (2016) Protagoras Abderakoaren erlatibismoa dela-eta dakarren analisisa sano orientagarria izan liteke beste proposamen batzuk aurkezterako orduan.

Olariagak erlazionismoa eta erlatibismoa nahastearekin kontuz bai kontuz ibili behar dugula gatzigatzen digu. Izan ere, bere hitzetan, erlazionismoa gaizki ulerturiko erlatibismo bat da, nolabait ere. Erlazionismoak  $y$  elementu bat  $x$  elementu batekiko erlatibo dela ezartzen duen eskema formalaren hezurdura darama jantzita. Eta erlazioalismoaren eskema honen baitan erreproduzituko litzatekeen logikan,  $y$  elementuak menpeko aldagaiaren papera jokatuko luke, eta  $x$  elementuak, aldiz, aldagai horren esa-

nahia bildu eta baloratuko dueneko marko kontzeptualarena. Hots, *frame*-arena edo diskurtsoarena. Oso ongi ulertzen zaio Olariagari:

«Erlatibismoaren bertzio desberdinak posible guztien konbinazioz aterako genituzke horri jarraituz. Horrenbestez, *y* aldagaiak aldagai garrantzitsu bat adierazten du, esaterako: etika, kontzeptuak, sinesmenak, pertzepzioak... Aldiz, *x* aldagaiak *y* aldagai hori erlatiboan izango den esparrua edo domeinua definitzen du: *framework*, *marko kontzeptuala* edo *mundu ikuskera* (...) deitzen dena. Marko kontzeptual horiek askotarikoak eta desberdinak izan daitezke: hizkuntza, kultura, indibidua, paradigma zientifikoa, gizakia, etnia, zentzuak, sortzetiko ideiak... Marko kontzeptual, mundu ikuskera edo *conceptual scheme*-ak gu bizi garen eta atera ezin gaitzekeen aldagai edo kondizionamendu gisa ulertzen dira hemen: bizi garen kultura, bizi garen garaiko paradigma zientifikoa, indibidua, kultura jakin baten balioak...»

(Olariaga, 2016:117)

Pasarteak Barthen plazara edo, beharbada hobeto esan, Barthen zenbait interpretaren planteamenduaren logika ulertzeko lurpeko pasabideetara garamatza. Marko kontzeptualarena egiten duen *x*-aren tokian identitatearen nozioak okupatzen du, eta hizkuntza eta bestelako kultur *stuff* kontsideratutako horiei, aldiz, menpeko *y* aldagaia-rena esleitzen zaie.

Baina, eta hemen dator proposamena: eta, *x*-aren tokian hizkuntza komunitatea eta *y*-ren tokian identitatea jartzea ere begiratuko bagenu, zer? Bada, orduan, zera gertatuko litzateke, identitatea izango genukeela menpeko aldagaia, eta hizkuntzak edota beste kultur gairen batek hartuko lukeela identitatearen esanahia bildu eta baloratuko lukeeneko marko kontzeptualarena.


Ikusmira handiagotzen duen operazioa da eta, hierarkiaren aurreiritzia gaindituz, joko zelaia zabalagoa dela ohartzen laguntzen digu. *X* eta *y* elementuak parez pare jartzen ditu, guk uste, zilegitasun intelektual osoz.

Barhtek deskribatzen duen mekanismoa gezurra ez da, inolaz ere: talde-identitatearen iraupen nahiak bere zerbitzuko jartzen ditu hainbat praktika sozial. Baina, identitatearen eta hizkuntzaren arteko harremanari dagokionez, apika osatu beharreko eraikin teorikoa da, beste norakoak ere funtzionatzen baitu, funtzionatzen duenez. Esan bezala, nahikoa da bata bestearen tokian jartzeko ariketa burutzea; nahikoa da, hizkuntza subjektu zentzu emailearen lekuan eta identitatea objektu hautemanarenean jartzea. Barthen ideiare uko egin beharrik gabe, jabetuko ginateke hizkuntza baten praktika mantentzearen amorez, identitateak ere negozia gai eta hizkuntza komunitatearen zerbitzura bihur ditzakegula.

Begizta bati buruz ari gara. Edo, bestela esanda, *x* eta *y* elementuei begiratu ordez, leiarra bien arteko harremanean edo elkarrekintzan jartzeari buruz ari gara.

Mundualdi, belaunaldi nahiz gizalditako denboraren joanean begiratu beharreko zirkuitu edo begizta honetan bi norabide antzeman ahal izango ditugu. Batetik, kultur praktiken inguruan konfiguratzeko diren posizioetatik eraikitako identitateak. Bestetik, identitate diskurtsoen abaroen aktiboki bultzaturiko edo, kontrara, ukaturiko kultur praktiken garapena, sustapena nahiz ordezkapena. Noiz nola.

### 1.Irudia: Begizta



Identitate eta kultur praktika aukerak sortu nahiz eragozten diren prozesu diakronikoak dira hauek, eta ezin esan Euskal Herrian adibide falta dugunik. Xilaban, Nafarroa Garaian, Araban. Abertzaletasuna izendatzen dugun mugimendu politikoa bera ere zeharkatzen du zirimola honek. Hara hor, hiru gehi bat.

Baga. Har dezagun, hasteko, esate baterako, Xilaba, 1789aren ondorenean. Aro Garaikidearen atarian, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako lurralde praktikoki osoan baziren haurrak euren hizkuntzan alfabetatzeko modua eskaintzen zuten eskolak. Eta bazen, letretarako usadio bat (Oyharçabal, 1999; Lamikiz, Padilla-Moyano, Videgain, 2015), horrek esan nahi duenarekin. Hots, bere apaltasunean eta gaingitu beharreko eragozpenekin, bazela sortuz zioan mundu berriko premietara biztanleak euskaraz moldatzen joan ahal izateko oinarriak.

Iraultzaile frantsesak *berdintasun* kontzeptuarekin zer egin ibili ziren. Aukera bat, Iraultzaren testuak bere herritarrentzako euskarara aldatzen zituen Pierre Dithurbidek eskatu bezala, euskaldunak parekotzat hartu eta eurekin aliantza saia-tzea zen, hiritarren eskubideen alde. Beste posibilitate bat, aldiz, subordinazio harreman bat ezartzea zen. Berdintasunaren ideala *asimilazio* gisa ulertu eta, terminoak berak dioen bezala, eskolaren bidez euskaldunak frantsesen berdin bihurtarazterren alderantz makurtu zen balantzaren orratza (Madariaga, 2014:122-154, 242-249).

Zorionez – lan bat gutxiago-, hartutako erabakiei eta burubide horien atzean izan ziren hausnarketan inguruko asmakizunetan ibili beharrik ez dago, aitortuak eta publikoak direlako. Hara eskoletan esku hartzeaz, prefet frantsesen zenbait hitz, 1802an:



«(...) un grand moyen de franciser les Basques, trop en arrière pour les usages, les moeurs, la civilisation et surtout la langue.»

(in Xamar, 2006:188)

Beste hauek, berriz, 1846koak dira:

«Nos écoles (...) ont particulièrement pour objet de substituer la langue française au basque.»

(in Xamar, 2006:188)

Iraultzako dilema etsenplu ona, identitatearen eta hizkuntzaren arteko begiztaren bi norabideak adierazten direlako. Hizkuntza identitatearekiko moldakor ulertzen duen norabidean, zenbait prefet frantses ageri zaizkigu, hizkuntza praktikak jomugan jarrita, euskaldunen artean muga identitarioak definitzeko era bat –frantsestasunazailtzen duela-eta. Tematuta. Baina bestetik, identitatea hizkuntzarekiko moldakor aditzen duenean zenbait euskaldun ere ageri zaizkigu, hizkuntza praktika batzuen normaltasunari eustearen amorez, identitatea ulertzeko era bat egokitzeko eragozpenik gabe. Malgu. Dithurbidek ez dauka «(...) devenus français par goût et par choix (...)» aldarrikatzeko problemarik (Madariaga, 2014:128). Ez du frantses (ere) bihurtzeko eragozpenik aitortzen, horrela euskal hiztun izaten utziko diotelakoan. Esan bezala, lehenengo kasuan, identitatea ulertzeko manera bati subordinatzen zaio hizkuntza; bigarrenean, hizkuntzaren erabilera normalizatzen da identitatearen inguruko diskurtso bat egokituz.

Eta xelebrea da gero, hara non iraultza zibiko honetan, ez ditugun euskaldunak ageri euren burua euskararen arabera definitu behar dela aldarrikatuz, ezpada frantsesak, euskararen erabileratik frantsestasunik garatu ezina ondorioztatuz, euskararen praktika aparteko marko kontzeptualtzat dutelako. Itxura denez, gaurko egunetz ere sendo asko dirauen konbentzimendua da, gainera. Zeren eta 2002koa baita, oraingoz, Xilaban eskola publikoan euskarazko murgiltze ereduaren aukera *ere* eskaintzeko araua baliogabetzeko azken erabakia (Larrea eta Bilbao: 2006:257). Frantziako Estatu Kontseilu Erabakiak betearazia izan dadin hartua eta, praktikan, euskal komunitatearen erreprodukzio sozial normalizatuaren aukera hipoteka ordaingaitzaren putzuan itozten duena, guztia esan behar bada. Agidanean, hala desio izanez gero bere buruari *Pays Basque* deituz jarrai dezaketen euskaldunak esentzialismotik salbatzeko.

Biga. Nafarroa, hara beste herrialde bat begiztaren bi norabideek gurutzatua. 2016ko neguan argitaraturiko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikerketaren emaitzen albisteak beta eman dezake ihardukitzeko hizkuntzaren ordezkapenak identitatearen konfigurazioan eragin dezakeen moduz. Identitateari buruz galdetzen delarik, besteak beste, ikerketa honetan Nafarroako hiritarren % 45 inguruk bere burua soilik nafartzat duela erantzuten du; ia % 30k, aldiz, bere burua nafar eta “euskalduntzat”

duela (Noticias de Navarra, 2016). Eta kontua da Nafarroan bereziki XIX. mendean hizkuntza ordezkapenik eman izan ez balitz, XXI. mendeko erantzunen pisua halakoa izango ote zen; hainbeste izango ote ziren bere burua nafartzat soilik dutenak eta % 30, berriz, bere burua “euskalduntzat” ere badutenak. Balio lezake gaztari usainen bat hartzeko, bere garaian, Miguel Indurain txirrindulari nafar erdaldunak bere identitateaz galdetu zion kazetari bati emandako erantzunak. Aitona-amonak euskaldunak (“vascos”) zituela, baina bera nafarra zela. Identitate gaskoiaren ernetzearen prozesu analogoa-edo dugu, mila urte geroago: hizkuntza ordezkapenaren itzaletan euskalduntasunaz aparteko eta, are, kontrako esanahia izatera ere ailega daitekeen identitatearen inguruko diskurtso berri bat joan da konfiguratzeko eta, hizkuntzaren ordezkapena hedatu ahala, indartuz. Lehen Akitania esan zitzaion horretan gaskoia bezala, oraingoan, “navarroa”.

Bestalde, alderantzizko norakoan, identitatearen inguruko diskurtso jakin batek hizkuntza praktiketan nola eragiten duen erakusgarri galanta ere bada Nafarroa. Elebakar erdaldunak ezingo du bere identitatea euskararen praktikatik definitu, noski. Askatasun hori faltako du. Baina, gizarteko agertokian interpelatua den bitartean behintzat, bere identitatea euskaratik definitzeko aukera hori sortzearen alde ala kontra konfiguratu beharrean izango da. Hartara, nafar identitate hori zein diskurtsok hornitzen duen, euskararen (komunitatearen) biziberritzeari aukera kentzearen edo ematearen alde egingo da: Nafartasuna euskararekin batera ulertuz, aukera ematearen alde. Nafartasuna euskararen kontra edo indiferentziatik ulertuz, aukera kentzearen edota, besterik gabe, ideia hegemonikoen alde. Kirolari nafarrekin segituz, Julian Retegi edota Fernando Arretxe pilotari euskaldunak gizarte fenomeno diakroniko honen adierazgarri ederrak dira. Biak ere euskaldun peto izanik eta euren burua “euskalduntzat” jorik, seme –pilotari- erdaldunen guraso ditugu, ziuurrenik ere euskarari balio txikia eta espainolari normaltasuna aitortzen dion identitatearen inguruko diskurtso jakin baten pisuari obeditzeagatik. Ez horrek bakarrik, jakina, baina pilotarion bilobak atzera euskaldunduko diren ala ez, euren inguruan nafartasuna ulertuko den erak ere kondizionatuko du<sup>4</sup>.

Eta Nafarroatik Arabara, higa. Begitari hirugarren dimentsio bat sartuz gero, batzuetan espirala antzeman litekeelako.

Itziar Ameztok eta Aguraingo Euskalgintzak (2010) herriaren berreuskalduntzea nola esplikatzen den suspergarri da. Agurain euskara espainolak ordezkatu zuteneko herria dugu, XX. mendearen erdialderako bere burua *vasco*-tzat ez zeukana, gaur egungo hainbat herri nafarrek bezala. Egun, berriz, haur eta gazte ia denek lehen ikasketak behintzat euskaraz burutzeko aukera da herritarren artean arrunta. Belaunalditan neurtu beharreko prozesu honetan, lehenengo urratsa nolabaiteko euskal kontzientzia/kontzientzia *vasco* bat esnaraztea izan da, besteak beste, euskal kulturaren erakusgarri-

4 Muga gaitzen esatera, “navarro” terminoaren tokian “vasco” edota “basque” jarrita, bere ñabardurekin, nahi duenak antzerako arrazoibidea gara litekeela bai EAEn bai Xilaban.

tzat jotzen diren elementu folklorikoak edo sasi-folklorikoak euskarri hartuz (dantza, txistua, pilota, mendigoizaletasuna ...). Erreferentzia horien inguruan sorturiko talde-kontzientziak, gero, legamia euskaraz funtzionatuko duen komunitate bat osatzeko posibilitate baterako aukera emango du.

Mamia eta legamia: legamia eta mamia. Espirale honetan, kultur gai folklorikoak objektutzat harturik, subjektu baskista baten kontzientzia lantzen da; eta, gero, baskotasun kontzientzia euskarri objektibotzat harturik, euskararen inguruko subjektu berri bat biziartzatzen da. Harrezkero, subjektu euskaldun honek ez du zertan kultur gai folklorikoei edota baskotasun sentimendu bati zertan loturik egon, eta hortaz, eklektikoa izango da bere kultur praktikoetan. Zeren eta Mendebaldeko testuinguruan, behintzat, hizkuntza eta kultur identitatea elkarrekin ulertzeak abantaila hori baitu, norbanakoaren autonomiaren izenean, gainontzeko kultur ezaugarriekiko lotura, gutxi gorabehera, nahiaren esku uzten duela, eta ez hainbeste ezinaren menpe.

Eta higa gehi bat, laga: adibideekin akitze aldera, har dezagun abertzaletasunaren begizta ahotan. Nola hartaz jarduterakoan ere nabari litekeen hizkuntza eta identitatearen artekoa hierarkikoki erlazionatzeko duen aurreiritziaren pisua eta nola joko zelaia irekitzeak mesedetan egingo liokeen. Izan ere, egun, antza denez, premisatzat jo behar baita euskal naziotasuna definitzen duen faktore erabakigarria aldatuz joan dela denboraren joanean, eta, hasiera batean aukeraturiko faktorea “arraza” baldin bazen, eta geroago “etnia”, 60ko hamarkadatik hona naziotasuna euskararekin lotzeko hautua egin dela<sup>5</sup>. Eta hori apika izango da nolabaiteko historia intelektual baten zatia; baina historia ez da hori bakarrik.

Narrazio honen arazoa nagusia da, guk uste, ez dela hizkuntza subjektutzat kontsideratzera iristen eta, ondorioz, ez dirudiela abertzaletasunaren hedatzean ideologoen ekinaz haratagokorik aintzat hartzerik dagoenik. Abertzaletasunaren eta hizkuntzaren artekoan bereizkeriaren logikaren leiarretik baino ez da aurkezten, nazioaren funtsa besteak ez bezalako izatean balego bezala. Horiek horrela, ematen du euskaldunaren euskal hiztun izatearen kontzientzia abertzaletasunari zor zaiola eta, hortaz, egiazki ez dagoela euskal hiztun izatearen kontzientziatik abertzale izatera pasatzerik.

5 Esate baterako, hara, nahiz eta liburuan behintzat, halako premisarik adierazten ez den, Joxe Azurmendiren Hizkuntza, Nazioa, Estatu (2017) liburuko kontraletik ekarritako pasarte hau: “XX. mendearen erditsuan, abertzaletasunak berritu sakon bat izan zuen, eta arrazaren ordez euskarari eman zitzaion lehentasuna gure herria definitzeko eta eraikitzeko orduan. Gaur, XXI. mendean, planteamendu berriak entzuten dira, lehengo uste ziuurak zalantzan jartzera datozenak: hizkuntza, nazioarentzat mesede eta sostengu izan arren, ez ote da kalte edo traba estatu bat lortzeari begira? Hizkuntza, Nazioa, Estatu kontzeptuei eta haien arteko harremanei buruz hausnarrean jarri da Joxe Azurmendi (...)”.

Eta badakigu hori ez dela horrela. Euren hizkuntzan alfabetatu gabeko euskaldunei, euskal hiztun gisa, ia ahotsik entzun ez izanak ez du esan nahi, inolaz ere, subjektu kontziente bat osatu ez dutenik.

Egia borobila da lagun ugari, euskaldun zein erdaldun, identitatetik, hots, abertzaletasunetik, ailegatu dela euskararekiko interesa izatera eta, are, euskaraz bizitzera. Baina ez da egia txikiagoa beste jende batek hizkuntzarekiko kontzientziatik hartu diola zentzua abertzaletasunak proposatzen duen proiektu politikoari. Horregatik -berriro begizta- abertzaletasunak euskara euskal nazioa definitzeko ezaugarri nagusitzat hartu duela esplikatzeko bezain egokia izan daiteke kontsideratzea euskalduntasuna duindu duelako hartu dutela euskalduniek gehienek abertzaletasuna erreferentziazko ideologiatzat. Nork hautatu du nor? Nork eman dio indarra nori? Abertzaletasunak euskarari, ala euskaltzaletasunak abertzaletasunari? Adierazgarriak dira “Euskal estatua irudikatzen” (Zabalo et al. 2016:46) azterlanean bildutako datuak: bere burua independentzia zaletzat agerturiko lagunen artean, euskal naziotasunaren nazioarteko aitortza leharkeen estatuari buruzko interesa apaldu egiten da, asko, baldin eta horrek ordainetan espainolez/frantsesez bizitzea euskaraz egitearen gainetik babestea esan nahiko balu.

Beraz, bilatu beharreko logika, ez da hainbeste bereizi nahiarena, identitate bat markatu nahiarena, baizik eta asertibotasunarena. Hizkuntza balioetsiko edo gutxietsiko den erak zerikusia du identitatearen inguruan konfiguratu diren diskurtsoekin; baina, halaber, identitatearen inguruan konfiguratu diren diskurtsoen arrakasta ere –gizarte inguru gutxi gorabehera demokratikoetan, behintzat- hizkuntza komunitateen araberakoa izango da.

Eta zergatik oso ongi ez dakidala, puntu honetan, Xabier Mendiguren Elizegik kontatzen duen zerbait dabilkit gogotik kendu ezinik. “Nire amonak, erdaraz, isilik egoten besterik ez zekik”, esan omen zion behin lagun batek. Gogoan dabilkit agian abertzaletasunak euskara hautatu duela dioen errelato honekin zeharkako zerikusiren bat usnaten diodalako; edota beharbada izango da jarraian datorren atalean hizpide hartuko dugun indiologiaren gaia oroitarazten didalako, era lauso eta nahasi samarrean.

## Indiologiak

Indiologia Iparramerikako jatorrizko herriei buruzko ikerketaren inguruan garaturiko diziplina humanistikoa da, hein batean, sinologiaren, egiptologiaren edota ikasketaklasikoen pareko. Oroz gain, pasio bat; hala diosku, behintzat, W. Y. Adamsek, antropologiaren erro filosofikoei buruz hausnarrean, bost ideologia zenbatu dituenak (2003:275). Leiarrei buruzko atalean bost ideologia horietako bitaz arituak gara jada pixka batean. Zehazki, eboluzionismoaz eta Idealismo alemaniarraz, nola lehenengoak unibertsalak bilatzen dituen, eta bigarrena, berriz, partikularista den; nola honen talaiatik, antropologiaren aztergai den “Bestea” “Gu lehen izan ginen hura” kontsideratzen den, eta harenetik, berriz, “Bestea”, “Gu ez garen beste hori” den. Bada, alde horretatik,

esan dezakegu indiologia herri jakin baten inguruan eraikitako ideologia partikularista berezia genukeela. Hain zuzen ere, berezia, herri partikular baten inguruan eraikia delako, eta horrek ideologia bi bider partikularista bihurtzen duelako.

Honekin adierazi nahi dugu, pasio batez ez ezik, indiologia, zeharka, baina garbiki, subjektu baten eraikuntza modu jakin batez ere mintzo zaigula. Bi partikularitasunen arabera eraikitako subjektua adierazten digu. Bere burua, alde batetik, “indioa” dela medio eta, bestetik, metropoliaren kontra eraikitzen duen subjektu baten identitateaz ari zaigu. Adams berak, Estatu Batuetako toponimia eta izenak aipatuz eta Boy Scoutek indioari dioten kultua goretsiz eta motibo eta enblema indiarren zabalpenaz ari delarik, indioak (sic) estatubatuarentzat izan duen eta duen garrantzia aldarrikatuko digu.

Xalotasun ikaragarri samarrez, ezin gardenago agertzen dute, agertzen dutenez, indiologiaren alderdi hau bi pasarte hauetako hitzek:

«Indioaren patu berezia zera bihurtzea izan da, gure arteko gehiengoarentzat, gure izaeraren dohainen eta esperientzia naziolanaren sinbolo eta metafora bat, aldian behinka goxatzen duguna eta biziberritzea irrikatzen duguna. Onerako ala txarrerako, indioen patua lotuago dago euren identitate sinbolikoarekin ekonomiaren errealitate praktikoarekin baino.»

(Adams, 2003:209)

Eta apur bat aurrerago:

«Halaber, garrantzitsua da nabarmentzea indioa eskusiboki dela “geurea”, hartz arrearekin, Grand Canyon eta Rocky Mountains-ekin batera. Estatu Batuak diren hori definitzen laguntzen du, Mundu Zaharreko nazioekin konpartitzen ez dugun zerbait delako eta hauek distantziatik baino ezin dutelako gozatu, ezagutu eta ikertu.»

(Adams, 2003:210)

Beraz, lurralde kolonizatuetan Gu berri eta partikular baten kondaira sortzeko erabiltzen da indioa, jatorrizko Gu/Beste metropolitarrarekiko oposizioan eta harekiko interlokuzioan. Eta erabili ere, egiten da indioa eskusiboki identitate berriari inkorporatuz, baina “gu ez garen bestearen” kontsiderazioa ematen zaion bitartean. Hala, indiologian, indioa “Geure Bestea” izango da, paisaia osatzen duten elementuak geure izaten diren bezala. Adams, identitate estatubatuarraren definizioaz ari da, baina, berez Panamericana alderik alde zeharkatzen duen jokoa da.

Hinki hankarik gabe esateko, indiologiak ari den subjektuak ez du bere burua indioarekin parez pare konparatzen. Indioa objektu bihurtu eta baliatu egiten du, bere buruaren mugak negoziatzerako orduan, metropoliarekin parez pare konparatzeko.

Eta ados, errazkerian eta barregarrikerian erortzea litzateke euskaldunok indioak garela kexaka zapuztu eta, besterik gabe, kokotsa jaso eta bizkarra emanda eguzkitara

paseoan irtetea. Eta, halere, indilogiaz irakurtzean, ezin esan guri behintzat burrunba egiten duten oihartzun urrun batzuk iristen ez zaizkigunik.

Adibidez, hotsak datozkigu Alberto Barandiaran (2004) kazetariari Ramon Zallok emandako erantzunetik itzulita. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aholkulari nagusietako bat izanik, Zallok Euskal kultura euskaltzaletasuna edo euskal nortasun nazionalarekin lotzen diren kontzeptuetatik bereizi behar dela idatziko du. Kezkatuak bezala, A. Barandiaranek galdetzen dio ea horrela ez ote den euskararen alde borondatez aritu den jende askoren lana gutxiesten ari. Gaizki ulertu bat eman dela adieraziko dio Zallok, bikain artikulaturiko ihardespenean<sup>6</sup>:

«Galderan testuak dionaren kontrako interpretazioa dagoela iruditzen zait. Lehenik eta behin, esan behar da gaztelaniazko eta euskarazko bertsioetan badagoela hizkuntza arazoa, eta gaur egun arazo hori ezin daitekeela saihestu. Gaztelaniaz, *vasquidad* zera da, nor bere burua *vasco*-tzat hartzea; *vasquismo* hitzak, aldiz, beste zerbait ere badakar berekin: euskal nortasuna lantzeko jarrera aktiboa. Euskaraz, arazoa da euskal erroa hizkuntzari bakarrik lotzen zaiola (euskaraz mintzo den euskal herritarra da euskalduna); normala da hori horrela izatea erro horren bilakaera historikoari erreparatuz gero, baina horrek murriztu egiten du interpretazio eremua, baldin eta hitz horrek edo besteren batek ez badituzte beretzen, kontzeptuan eta komunikazioan, bi gizarte fenomeno. Alde batetik, euskaraz egiten ez duten euskal hiritarrak, euskal gizartearen parte direnak. Bestetik, duela 25 urte, EAEko gu guztion ordezkari politikoak epe luzeko euskalduntze aktibo eta borondatezkoaren alde egin zuen. Eta emaitzak ikusten ari dira. Banakoak eta taldeak hizkuntzara erakartzeko modu jakin batez mintzo garenean, eta kultur politika partekatuak egin dezake horretarako modua, denok ados egongo gara honetan: oraindik eraikitze bidean diren gizarte demokratiko, libre eta herritarrentzat inklusiboetan, ez da ez zuzen ez komenigarri inolako zirrikiturik uztea euskaldunagoa-ez hain euskalduna mailaketa egiten duten interpretazioei, izan interpretazio agerikoak, izan lausoak.

Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar iragan hurbilean arakatu egin izan dutela, euskal herriaren beraren izaera ukatzeko. Euskaltzaletasun orokorra epe ertainean lortzeko, abiapuntua litzateke onartzea denok euskal herritarrek garena, hau da, euskaltasuna bera onartzea, espainiartasunarekin edo frantzesartasunarekin nahastuta egon ala egon ez. Nortasunak mantso aldatzen dira.»


(A. Barandiaran, 2004)

Ongi oldozturiko erantzuna da, eta mamitsua. Eta, posizio euskaltzale batetik, nik uste, kezkarri samarra, itxura batean diskusiorik ametitzen ez duen euskararekiko maitasuna ageri duelako. Eta zer esango dugu, bada, diskusiorik nahiago izaten ez duten maitasunez, batzuetan harri eta zur uzten gaituztela ez bada.

Oraingoan ere hinki hankarik gabe: identitate baskista baten eraikuntza helburu, euskaldunarekiko konparaziorik inolaz ere ez onartzeko gaztigatzen duen diskurtsoa

6 Azpimarrak geureak dira..

da, baina, era berean, omisioz – ezagutzen dugu Euskal Herria-, bidea libre uzten du espainolekiko edota frantsesekiko konparaziorako unean, euskaldunaz baliatzeko<sup>7</sup>. Identitate baskista baten eraikuntza helburu, euskalduna vasco-aren partetzat onartzeko eskatzen da planteamendua honetan, hala nola nabarmentzen duen Adamsek indioa eskusiboki estatubatuarrena dela. Eta tristea da ikustea hierarkia bat ezarriko den beldurra agertu ondoren, beste hierarkia bat haizatzen nola uzten den. Lokatzetik irten eta lupetzetan sartu. Guztiok ei garen vasco-az baino hitz egin behar ez denez, *euskaldunagoa-ez hain euskalduna* mailaketari atea itxi behar zaiola ohartaraztearekin batera, zer eta, *baskoa-baskoegia* mailaketaren posibilitateari irekitzen zaio leihoa. Zeren eta normaltasunaren isatsetan geratzen diren gutxiengoek gehiegikeriatzat joak izateko arriskua berezkoa baitute. Batez ere, nabarmentze aldera egiten badute.



Irudia: Cultura vasca/culture basque-ren parte al da euskal kultura? Hala bertsio nazionalistan, nola erregionalistan. Kasurako, berdin samar dio.

Baina, nola esan? Inorenik gutxietsi gabe, zilegi bekit aitormen intimo bat egitea: nik behintzat nire euskalduntasuna ez dut ezein vasquidad-en parte gisa bizi. Eta ez dut uste bakarra naizenik. Eta, alde horretatik, Zalloren planteamenduak, bere alde on eta guzti, bere horretan arrotza egiten zait. Edo arrotzu egiten nau.

Egia da egoera konplexua eta delikatua dena Euskal Herriko ingurumarian. Hizkuntza ordezkapenetik eratorritako posizioak eta ibilbideak ugariak dira, bai jatorriari dagokionez bai hizkuntzekiko harremanei dagokienez. Badira, besteak beste, bertan nahiz atzerrian jaiotako hiritarrak; badira, euskaraz egiten ez dakitenak, euskaraz egiten dakitenak, euskaraz jakin arren, beregainki erdara erabiltzen dutenak, edota euskaraz ederki hitz egin arren, idazten ez dakitenak. Eta guztiek dute Espainiaren eta Frantziaren eta Euskal Herriaren arteko subordinazio harremanari buruzko nolabaiteko kontzientzia. Horregatik, hiritarrak hainbat eratan sentitzen dira interpelaturik bere herri identitateari eta hizkuntzei buruzko harremanen amaraunean.

Espazio honetan, euskal nortasunaren eta kulturaren inguruko diskurtso ezberdinak konfiguratu dira, bakoitza posizio ideologiko zein praktiko jakinen neurriko. Eta tipologia bat taxutu beharko balitz, guk geuk behintzat, hiru diskurtso bereiziko

7 Hala bertsio nazionalistan, nola erregionalistan. Kasurako, berdin samar dio.

genituzke, gutxienez: batetik, Euskal kultura, bere horretan, eta, bestetik, *cultura vasca/culture basque erresistentea* nahiz *cultura vasca/culture basque asimilatua* izendatuko genituzkeenak.

Euskal kultura, funtsean, euskaraz egin izan den eta egiten den hori litzateke. Kulturaren adierarik zabalenean ulerturik, euskaldun jendeak hala historian zehar nola eguneroko bizitzan integraturiko eta integratzen dituen praktiken emaitza. *Cultura vasca/culture basque erresistentea*, berriz, erdaraz adierazia izanik ere, euskal herria atzera ere euskalduntzeko zubi lana egiteko bokazioa duten jardunak genituzke. Urrutirago beharrik gabe, Joxe Migel Barandiaranen lanaren zati handi bat, horren adibide. Eta, hirugarrenik, *cultura vasca/culture basque asimilatua* genuke, zeina ezaugarrituko bailuke hizkuntza ordezkapenaren onarpenak eta bere horretan irauteko nahiak. *Cultura vasca/cultura basque asimilatua* euskal herriaren euskalduntzearekiko nagi, ezaxola, edota, kasu batzuetan, mesfidati edota, are, kontrario agertuko litzateke (Jausoro, 1997). Eta, era berean, antagonismo politikoan kiribilduriko bi bertsio litzuzke: Horietako batean, kultura espainolaren edota frantsesaren eskualdeko aldaeratzat edo subkulturatzat adieraziko litzateke. Beste bertsioan, aitzitik, estatubatuarrak ingelesez aurrean bezala, bere burua kultura espainolarekiko nahiz frantsesarekiko ezberdin eta parekotzat joko lukeen identitate gisa.

Kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremanari buruzko hiru diskurtso tipo hauek espazio bera konpartitzen dute, baina euren arteko bizikidetzaz ez da eroso, ondoez, erru, lotsa ezberdinak sortzen dituelako. Identitate legitimo edo “errealaren” inguruko zalantza pizten du elkarren arteko islak. Bereziki EAEn, non abertzaletasuna nagusi den, bere burua espainoltzat daukan erdalduna deseroso sentitzen da abertzaletaren irudiak aurpegiatzen ei diolako ez dela “egiazko euskalduna”. Baina era berean, espainolez bizi den abertzalea ere deseroso sentitzen da euskaraz bizi denaren ispiluaurrean, itzultzen dion irudiak diotsalako oso abertzale sentituagatik, erdaraz egiten duen heinean bera ez dela “egiazko euskalduna”, italieraz egiten duen italiar bat “egiazko italiarra” ez den bezala. Eta, hondarrean, euskaraz bizi denaren edo bizitzen ahalegintzen den gutxiengoaren eguneroko ondoeza ere badaukagu erdaraz bizi direnen aurrean, zentsuratzen zaiolako euskaraz bizitzeko hautua ez dela gehiengoaren –“euskaldun errealaren”- hautua.

Harri batez bizpahiru kolpe, dudarik ez da Zallok hauspotzeko eskatzen duen baskismoaren diskurtsoak bere burua *cultura vasca* ezberdinen inguruan ikusten duten lagun ondoezak arinduko litzuzkeenik; ezta hori ona eta desiragarria denik ere, eta alde, euskaltzaletzeari begira beharrezko izan litekeenik. Arazoa, beste bat da, ordea. Arazoa da formulazio honetan, trukean, euskaldun elebidunaren ondoeza umezurtz geratzen dela, ezetsi egiten delako hizkuntza gutxitu baten erabilerari zentzu primarioa emango dion identitatearen inguruko diskurtsoen beharrezana. Leiar bakarria erabiltzearen gaitzez aritu gara.



Nolanahi den ere, euskal eta *vasco* terminoak direla tarteko, Zallok burutzen duen euskal terminoaren desautorizazio zorrotza benetan da deigarria. Zaloren hitzetatik eratorritzen da *vasco* nozioa euskal erroa erabiltzea baino zientifikoagoa dela, azken honek murriztu egiten ei duelako errealtatearen interpretazioa. Halaber, *vasco* nozioa erabiltzea etikoagoa dela ere bai, euskal erroak hiritarren artean hierarkia injustu bat erreproduzitzen ei duelako. Eta ikuspegi politikotik ere, euskal nortasunari dagokionez, baskismoa lantzea komenigarriagoa ageri zaigu, euskaltasunaz aritzea baino. Atentzioa ematen du alderdi *zientifiko*, *etiko* eta *politiko*a azpimarratuz euskal terminoa nola problematizatzen duen. Ohartarazpen hauen azpitik patxadaz aztertu beharreko *gutasunaren* inguruko emozioen, autoritate akademiko ezberdinen edota gaizki-ulertu edo ezin ulertu kontzeptualen arteko urradurak imajinatu beharko balira bezala. Laburbilduz, edonork esango luke errealtatearen eraikuntzarako orduan, emozionalki, intelektualki, politikoki lehian sartu diren euskarazko eta erdarazko bi diskurtsoren aurrean gaudela.

Baina, euskal erroa problematizatu ordez, ez litzateke zentzuzkoagoa aitortzea “zer da euskal kultura?” eta, adibidez, “¿qué es la cultura vasca?” galderak ez direla elkarren ordain, eta, logikoki, bi erantzun propio eskatzen dituztela?

Gure ustez, Zallo oker dago euskal erroa euskararekin lotzea arazo bihurtzean. Arrazoi du, ordea, euskaraz aritzerako orduan terminologiaren inguruko lan bat egin-kizun dagoela iradokitzerakoan. Munduak kabitzen baitira terminologian. Hor bai, ziur asko hor bada arazo bat, aspaldi ezkerro arrastaka dakarguna. Koldo Mitxelena-renak dira duela hogeita hamar urteko hitz hauek:

«El vasco, el hijo del país, es sencillamente euskaldun: poseedor de la lengua vasca: Esto, ahora y hace ya bastantes años, no deja de plantear un problema grave: ¿cómo llamar a los descendientes de vascos, a los nacidos en Vasconia, a todos los vascos de deseo que no hablan la lengua vasca?»

(Mitxelena, 1977:9.10)

Hogeita hamar urte eta gero, esan liteke honezkero euskaldun hitza dela *vasco* hitzaren esanahira gerturatzen ari dena, bere identitate negoziazio horietan, *vasco* horrek esan nahi duena esan nahi duelarik ere. Baina norberaren flakeziagatik aldamenekoaren indarrak kekatzea ez da dotorea. Besteren artean, Mitxelena-k zioen “vascos de deseo que no hablan la lengua vasca” horiek izendatu eta gizarteratzea izango litzateke kontua, euskal pentsamendu akademikoaren dotoreziaren adierazgarri.

Eta, zera, bada hor Szasz antipsikiatraren esaldi bat, ezagun samarra-edo, dioena animalien erresuman araua jatea ala jana izatea den bezala, gizakion artean auzia definitzean ala definitua izatean datzala (1973:20). Egia esan, bere bortitzean, ez da oso sententzia atsegina, zeren eta bi mutur horien tartean eman litezkeen elkarrizketabilbideen aukerari tarterik utzi gabe baitator. Beharbada horregatik, ez letorke gaizki

zirrikituren bat irekitzea, *vasco*-en eta euskaldunen artean bi subjektu kritikoren arteko parez pareko elkarrizketa baterako aukerari argi pixka bat sartzen utziko liokeena, eta guztioi ere ahal denik eta erosoan egoteko balioko diguna, aldatuz doan eta joango diren paisaia hautan barrena.

**Ibai Iztueta Azurmendi**



## Bibliografia:

- Adams, William Y. (2003): *Las raíces filosóficas de la antropología (The Philosophical Roots of Anthropology)*, Trotta, Madrid.
- Ameztoy, Itziar eta Aguraingo Euskalgintza. (2010): *Euskararen bidea Agurainen*, Arabera, Gasteiz.
- Arratibel, Nekane; Azurmendi, Mari-Jose; Garcia, Iñaki (2001): *Menpeko hizkuntzaren bizi kemena*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 45-68 orr.
- Azurmendi, Joxe (2017): *Hizkuntza, Nazioa, Estatua*, Elkar, Donostia.
- Barandiaran, Alberto (2004): “Plan honetan datza euskal kulturaren izatea ala ez izatea”, Ramon Zallori ekarrizketa, *Berria*, urriak 22.
- Barth, Fredrik. (1969): “Ethnic Groups and Boundaries”, in [http://sites.harvard.edu/fs/docs/icb.topic446176.files/Week\\_4/Barth\\_Introduction\\_Ethnic\\_Groups\\_and\\_Boundaries\\_.pdf](http://sites.harvard.edu/fs/docs/icb.topic446176.files/Week_4/Barth_Introduction_Ethnic_Groups_and_Boundaries_.pdf)
- Baxok, Erramun; Etxegoin, Pantxoa; Lekunberri, Terexa; Martinez de Luna, Iñaki; Mendizabal, Larraitz; Ahedo, Igor; Itzaina, Xabier; Jimeno, Roldan (2006): *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Carter, Angela (2016): *Cuentos de Hadas de Angela Carter (Angela Carter’s Book of Fairy Tales)*, Impedimenta, Madrid.
- Costa, Albert; Foucart, Alice; Sayuri Hayakawa; Melida, Aparici; Apesteguia, Jose; Heafner, Joy eta Keysar, Boaz (2014). “Your Morals Depend on Language”, in *PloS ONE*, apirilak 23.
- Diaz de Mendibil, Ismael (2013): *Buztingintza mendeetan zehar Ollerietan/Siglos de alfarería en Ollerias*. Elkarrizketa Blanka Gomez de Segurari. Legutioko Udala-Euskal Buztingintza Museoa/Ayuntamiento de Legutio-Museo de Alfarería Vasca.
- Esparza, Jose Mari (2011): *Mapas para una nación: Euskal Herria en la cartografía y en los testimonios históricos*, Txalaparta, Tafalla.
- Etxeberria, Hasier (2013): “Koskaren gakoaz” in <http://zuzeu.eus/euskal-herria/koskaren-gakoaz-3/>
- Fuss, Diana (1989): *Essentially Speaking: Feminism, Nature and Difference*, Routledge, New York-London.
- Hobsbawm, E.J. (1992): *Naciones y nacionalismo desde 1780 (Nations and nationalism since 1790)*, Crítica, Madrid.
- Izagirre, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Susa, Zarautz.
- Iztueta, Ibai (2015): *Cultura vasca vs Euskal kultura*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Jausoro, Nekane (1997): *La práctica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Lakoff, George (2013): *Puntos de reflexión (Thinking points: communicating our American Values and Vision)*, Península, Madrid.
- Lamikiz, Xabier, Padilla-Moyano, Manuel, Videgain, Charles (2015): “Othoi çato etchera” in <http://lapurdum.revues.org/2528>

- Larrea, Imanol; Bilbao, Paul (2010): “Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza”, in Lujanbio, O. (koord.), *Soziolinguistika eskuliburua*. Eusko Jaurlaritz/Sozilinguistika klusterra. Gasteiz, 231-186 orr.
- Madariaga, Juan (2014): *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Maingueneau, Dominique (1991): *L'analyse du discours. Introduction aux lectures de l'archive*, Hachette, Paris.
- Mendiguren Elizegi, Xabier: “Hobe ixilik” in <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2547/hobe-isilik>
- Mitxelena, Koldo (1977): *La lengua vasca*, Leopoldo Zugaza editor, Durango.
- Noticias de Navarra (2016): “El %45,1 de los ciudadanos que se consideran navarros no se sienten ni vascos ni españoles” in <http://m.noticiasdenavarra.com/2016/12/06/politica/navarra/el-451-de-los-ciudadanos-que-se-consideran-navarros-no-se-sienten-ni-vascos-ni-espanoles>
- Olariaga, Andoni (2016): “Protogorasen erlatibismoaren defentsa”. *Jakin*, maiatza-ekaina, Donostia, 101-124 orr.
- Oyharçabal, Bernard (1999): “Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen il-dotik, iraultzaren frantses garaiko eskola liburuxka bat” in <http://lapurdum.revues.org/1545?lang=ga#tocto1n1>
- Saizarbitoria, Ramon (2016): “Originalak izan beste erremediorik ez dugu” in <http://zuzeu.eus/kultura/ramon-saizarbitoria/>
- Sala, Teresa (2003): “Ni sukaldea globalizatzearen aurka nago. Herrialde bakoitzak bere sukaldaritza mantendu behar du, hizkuntza eta ohiturak mantentzen dituen bezala”, Juan M. Arzaki elkarrizketa in <http://www.euskonews.com/0214z/bk/elkar21401eu.html>
- Szasz, Thomas (1973): *The Second Sin*, Doubleday, New York.
- Therborn, Goran (1987): *Ideologia del poder y el poder de la ideología (Ideology of Power and the Power of Ideology)*, Siglo XXI, Madrid.
- Tylor, Edward (1871): *Primitive Culture*, John Murray, London.
- Txillardegui, J.L. Alvarez Enparantza (1984): *Euskal kulturaren zapalketa, 1956-1981*, Elkar/AEK, Donostia.
- Txillardegui, J.L. Alvarez Enparantza (2004) (1972): “Hizkuntza eta pentsakera” in *Euskararen aldeko borrokan: euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983*, Elkar, Donostia.
- XAMAR, J. C. Etxegoien (2006): *Euskara Jendea: Gure hizkuntzaren historia, gure historia-ren hizkuntza*, Pamiela, Iruñea.
- Zabalo, Julen; Larrinaga, Ane; Iraola, Iker; Saratxo, Mikel; Amurrio, Mila; Mateos, Txoli; Fullaondo, Arkaitz; Anduaga, Uxo (2016): “Euskal Estatua irudikatzen”, Iparhegoa/Partehartuz/EHU-UPV.
- Zallo, Ramón (2006): *El Pueblo Vasco, hoy*, Alberdania, Irun.